



Horrela bizi dira **Hizbullah-ren** domeinuetan



Xabier Mikel Errekondo:

«Indarrrik badugu, oraintxe da momentua erraustegiaren aurka plantatzeko»

Itziar Ziga:

«Emakumeon aurkako indarkerian ere, heroiak gizonak dira»

Xabi Molia:

«Frantziak oraindik ere diruz laguntzen du zinema berritzailea»

Pedromari Olaeta:

«Egungo ezkerrek ez daki jendea mobilizatzen, iraganeko paradigmatik erabiltzen dituelako»



Ekologia politikoa

Ideologia berdearen genesisia, teoria eta praxia

■ Florent Macellesi

“Ekologia politikoa ideologia gisa”

(Macellesiren artikuluari egindako kritika)

■ Iñaki Barcena

Oharra: Florent Marcellesiren lana *Cuadernos Bakeaz* argitarapenaren 85. zenbakitik hartutako artikulua da. Iñaki Barcenaren kritika, aldiz, *Ecología política* aldizkariaren 37. zenbakitik.

- 4 Deabruaren abokatua: Alberto Barandiaran.**
Aritz Galarra.

Gaiak

- 18 Argentinako desagerraraziak. Clarín ahaltsuaren jabea auzitan.** Álvaro Hilario Pérez de San Román.

Iritziak

- 20 Ttakun (h)errenka. Argazkian ez ateratzeko ariketak.** Ixiar Rozas.
21 Gora Pro Nobis. Asisko Urmeneta.
22 Sufrimenduen testigu. Arantxa Urbe.
Piztiak. Castillo Suarez.
23 Kultura libreko piratak. Gotzon Barandiaran.
Zale sufrituak. Joxemari Ostolaza.
24 Bertso berriak. 2b1ia: eskarmentu berria.eus. Xabier Paya.

Erdiko kaiera

- 28 Liburuak.** Saioa Ruiz Gonzalez.
29 Diskoak. Iker Barandiaran.
30 Ezpalak. Jon Torner.
31 Abarrak. Garbine Ubida Goikoetxea.
33 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
34 Ihesi: Donibane Garazi. Edertasun eta grazi. Itziar Madina.
38 Osasuna. Jabier Agirre.
39 Landareak. Jakoba Errekondo.
40 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa


- 41 Pedromari Olaeta (EA): "Ez dago ezker subiranistaren espazioa bete dezakeen alderdirik".** Mikel Asurmendi.
44 Eleaniztasuna. Kontatu zure bizitza linguistikoa. Onintza Irureta.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Giza simaurretan adituak behar ditu gizadiak. Pello Zubiria.

Azkena

- 50 Ilea eta Aristofanes.** Josemari Velez de Mendizabal.

5 | Hizbullah | Alberto Pradilla / Martxelo Díaz

Libanon, Beiruteko Dahie auzoan ez Armadak ez Poliziak ez dute lekurik, Hizbullah da nagusi, Ekialde Hurbileko talde politiko-militar indartsuena. Bertan izan gara, Jainkoaren Alderdiak duen eragina gertutik eza-gutu asmoz.



15 | Itziar Ziga, feminismo femeninoaz Amaia Alvarez Uria/Onintza Irureta

25 | Xabi Moliaren lehen filma Mikel Garcia

10 | Xabier Mikel Errekondo | Sustrai Colina

Eskubaloj jokalaria ohiak erronka handia dauka alkate den herrian, Usurbilen, hondakinen atez ateko bilketak zeresan ugari eman duelako azkenaldian. Horrez gain, kirolaz eta politikaz ere aritu zaigu Errekondo.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubida. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Xabier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubida Goikoetxea. Azaleko argazkia: Aritz Intxusta.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua





• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Nik, gutxienez, lau titular ikusten ditut elkarrizketa honetan”

Alberto Barandiaran | Gerra kazetaria

Eguneroko batailan zaildua,
ez du kazetaritzarenganako gustua galdu, aizue.

ARITZ GALARRAGA
Argazkia: Josu Santesteban

Hara kazetari bat! Kontuz ibili beharko naiz orain, zer esaten dudana...

Uste nuen ni nintzela elkarrizketatua. Erredakzio guztietan erakusten dute akats larria dela pentsatzea elkarrizketagilearen galderak elkarrizketatuaren erantzunak bezain garrantzitsuak direla.

Baina lasai egon naiteke? Ez dituzu publikatuko hemen esandakoak?

Ez, ez zaitezke lasai gera. Kazetari bati ezin zaio ezer *off the record* esan.

Ados, grabagailua piztuko dut: kazetaria, iluna argitzen saiatzen den hori.

Ez nago ados. Kazetariak, gehienez ere, argi pixka bat eman beharko lioke iritsi den, aztertu duen, ikusi duen errealitatearen parte txiki eta ñimiño horri.

Kontxo...

Baso ilun batean eskuargi txiki batekin joatea bezalakoa da. Anpuloso samarra, guztiz handinahia litzateke uste izatea eguzkia harekin aterako dela.

Prosaikoago jarriko naiz: kazetaria, informazioaren garraiolari.

Ezta ere! Hori prentsa oharrekin cypast egitea da. Ez luke hala behar. Kazetariak informazioa aztertu behar du, eta gero, bere erara eman.

Beti ere objektibo eta independenteki, noski.

Uste dut subjektibotasuna aldarrikatzen dugunean, orduan kazetariak sinesgarritasuna

na eta prestigioa irabaziko dugula. Independent? Inor ez da independente.

Horregatik gertaera bakarretik hain notizia ezberdinak!

Hain zuzen ere, aurreko galderan erantzun dizudanagatik.

Kazetaritzak badu eskulanetik zerbait, beraz; manipulatzearen kontuagatik, diot.

Kar-kar, gaiztoa zara gero.

Egunkari batean, ehuneko zenbat sinetsi beharko genuke?

Ez genuke ezer sinetsi behar. Irakurri, aztertu, pentsatu, ondorioztatu, eta, gero, hurrengo orrira pasa. Hori litzateke sekuentzia ideala, nik uste. Sinesteko, elizak daude.

Elizak eta egunkarietako iritzi sailak. Fedea behar da horiek irakurtzeko...

Garai batean, sail irakurriena zen. Baina hori ere aldatu da. Orain orritz mugitu dira iritziak, politika sailera.

Elizaren antzera, kazetariak ez du botere makala: zuek erabakitzen duzue zer den notizia!

Horretan arrazoi. Baina uste dut ez dela kazetarien akatsa. Gehiago, komunikabideena.

Aizu, hamar galdera eta oraindik ez didazu titullarrik eman!

Ez dakit zer kazetari klase zaren. Nik, gutxienez, lau ikusten ditut. ■

• ASTERKO GAIA •

Hizbullah

Estatuaren barneko estatua

Ekialde Hurbileko talde politiko-militar indartsuena da Hizbullah. Jainkoaren Alderdiak Libanoko Armadak baino bitarteko hobeak ditu eta Israelgo Armadari birritan gailentzeko gai izan da. Libanoar guztien erreferentea izan nahi duen taldea nagusi den eremuetan izan gara.

ALBERTO PRADILLA
MARTXELO DÍAZ

Argazkiak: Aritz Intxusta

LIBANOKO MILITAR BATEK Hassanen autoa geldiarazi du Litani ibaia, Hizbullah nagusi den lurraldeko muga naturala, zeharkatzen duen zubian. Hassanek, Libano hegoaldean Jainkoaren Alderdiak duen prentsa arduradunetako batek, bere agiria erakutsi du. “Gutxie-

nez, pasaporteak emango dizkidazue kontrola nork zeharkatu duen jakiteko”, eskatu du soldaduak. Egia esan, atzerritarrek ezin dira hemendik pasa. Beirutetik hegoaldera dagoen Saida hiriko Komandantzia Militar libanoarraren baimena ezinbestekoa da Israelgo

Pasa den abuztuaren 15ean, Hizbullah eta Israelen arteko enfrentamenduaren hirugarren urteurrean, talde politiko-militarrak antolaturiko mitina.





(hegoaldeko arerioa) mugarantz doazen errepideetatik ibili ahal izateko. Baina nortasun agiri horiak balio du Libanoko Estatua desegin eta Jainkoaren Alderdiaren Gobernuak agintzen duen eskualdera abiatzeko.

1990eko hamarkadatik Sayyed Hassan Nasrallah-k zuzentzen duen Hizbullah, Ekialde Hurbileko talde politiko-militar indartsuena bilakatu da. Ustez garaiezina zen Israelgo Armadari birritan gailentzeko gai izan da eta, nahiz eta demografikoki ugari izan, historikoki jazarpena eta marjinalitatea pairatu duen xiiten komunitateari itxaropena itzuli dio. Beirut hegoaldeko auzo txiroak, Baalbek ingurua (Bekaa bailaran) eta Israelekin muga egiten duten lurraldeak dira talde honek kontrolatzen dituen eremuak. Denboraren poderioz, sionisten aurkako erresistentziaren eredu bilakatu da, Tel Aviven erasoak etengabe pairatu dituen herrialde batean. Halere, Libanok hemezortzi komunitate erlijioso izateak, elkarren arteko aliantzak etengabe aldatzeak eta populazioaren gehiengo estruktura sektarioen pean egoteak Hizbullah herrialde osoan zehar zabaltzea oztopenen dute. Talde honek, ordea, harreman estuak mantentzen ditu, batez ere erlijiosoak, Iranekin, xiitak nagusi diren herrialdearekin.

Haj Hatem da Libano hegoaldeko Hizbullahen harreman politikoen arduradun; agerian dagoena ezkutatzen saiatzen da: “Ez dago gure alderdiak kontrolatzen duen eremurik”,

Abuztuaren 15eko mitinean, Beiruteko Dahie auzoan 20.000 pertsona baino gehiago biltzea lortu zuen Hizbullahk.

dio Saida hirian duen bulegoan. Hiri horretan Jainkoaren Alderdiaren zantzurik ez da ikusten. Aldez aurretik prestaturiko diskurtsoari hitza jartzen dio Hatemek. Israeli ez diote su-etenik eskaintzen, baina Libanoko beste taldeen aurrean eskuzabal agertzen dira. “Herrialde osoa gobernuaren kontrolpean dago, guk ez dugu autoritate hori, nahiz eta Libanoko herri guztietan ordezkaritza izan, beste alderdi nazionalak bezala”. Baina Hizbullah, Libanoko Armada baino bitarteko hobeak dituen milizia izanik, herrialde osoa egun eskas batzuetan kontrolatzeko gai da. Hala frogatu zuen 2008an, gobernuak talde honen komunikazio sareak mugatu nahi izan zituenean eta Hizbullahk Beirut nahi zuenean. Atzera egin zuen ordu gutxira, gobernuak bere erabakia indargabetu zuenean. Herrialde osoaren kontrola ez hartzea erabaki zuen Hizbullahk. 1990etik hona –Taisko hitzarmenak hamarkada luzeko gerra zibilari amaiera eman ziotenetik– antolatutako hauteskundeetan parte hartu izanak taldearen konpromisoa erakusten du errotik aldatu nahi duen sistema politiko batekin.

“Indarrean dagoena mantentzeko dena mugitzen duen herrialdea da Libano”, dio Issa el-Ayubi kazetariak. Libanoko politikaren ezaugarri nagusia den kaosaren erdian, Hizbullahk ez dio inori gezurrik esaten. Pasa den martxoaren 14an blokea osatu zuten AEBetan, Frantziaren eta Saudi Arabiaren

sostenguarekin Saad Haririk zuzentzen duen Etorkizuneko Mugimenduko sunitak, Falange eta Indar Libanoarrak kristau maronita taldeak eta etengabe ezustekoak eragiten duen Walid Jumblatt drusoak. Bada, bloke honek joan den ekainaren 7ko hauteskundeetan garaipena lortu zuenean, Mendebaldeko komunikabideek ez zuten euren poza ezkutatu. Gogobetetzea nagusi zen giro horretan ia inork ez zuen aipatu Martxoaren 8ko Blokeak –Hizbullahk, Amalek, Michel Aoun jeneralaren Korrante Patriotiko Libre talde kristau maronitak eta ezkerreko taldeek osaturikoak– bere arerioak baino 200.000 bozka gehiago lortu zituela. Hauteskunde sistema sektarioa izan zen Mendebaldearen lagunak salbatu zituen.

Sinesmenetan oinarritzen den banaketa hori, 1975etik 1990era Libanon odolustutzea eragin zuen gerra zibilaren ondorioa da. Parlamentuko 128 eserlekuak erdibana dituzte kristau eta islamdarrek. Lehen artean, maronitek 34 eserleku dituzte, greko-ortodoxoek hamalau, greko-latinoek zortzi, armeniar ortodoxoek bost, eta bana armeniar katolikoek, ebanjelistek eta kristauak. Islamdarren artean, xiitek 27 eserleku dituzte, sunitak beste 27, drusoak zortzi eta alauiak bi. Banaketa sektarioa estatuaren kargu garrantzitsuenetara ere hedatzen da. Presidenteak kristau maronita izan behar du, gobernuak lehen ministroak sunita eta parlamentuko presidenteak xiita. Libanoko sistema politikoaren ahulezia iaz geratu zen agerian berriz, ekainean izan ziren hauteskunde ondoen. Sei hilabete eman zituzten gobernurik gabe, bi bloke nagusien artean akordioa lortzea ezinezkoa izan baitzen. Azkenean, ituna azaroan sinatu zen, Hizbullahk bi ministro dituen Batasun Nazionalako Exekutiboa osatuz. Libanoko hautes-sistemaren gainean Hizbullahk duen jarrera azaldu du Haj Hatemek: “Egungo sis-

temaren aurka gaude eta lege berria nahi dugu. Baina horretarako, herrialde honetako politika sektarioekin amaitu beharra dago. Hautesbarruti bakar baten alde egiten dugu eta ordezkaritza portzentuala izatea nahi dugu. 2013rako hautes-legea aldatzea espero dugu, demokratikoagoa izan dadin”.

Beiruteko Dahie auzoan

Hizbullahren garrantzia hauteskundeetatik harago doa. Xiiten artean aurrekari izan zen Amal taldearekin duen hitzarmenarekin lortzen du bozen kontrola, baina benetako indarra bertsio ofizialaren arabera “kontrolatzen ez dituen” lurraldeetan ikus daiteke. Beiruteko

Dahie auzoan adibidez, non ez Armadak ez Poliziak ez duten lekurik. Hamarnaka gaztek, gehienak motorren gainean, kamerak debekatuta dauden auzoetako kale zaratsuak zaintzen dituzte. Ez dute armarik; han daude, besterik ez. Kontuan izan behar da hau izan dela Israelgo bonben jomuga, Hizbullahren egoitzak ez ezik mugimendu islamistaren Al-Manar telebistaren platoak daudelako bertan. “Nor zara?” eta “zer egiten duzu hemen?” dira auzo hauetan atzeritar bati berehala egingo dioten galdera, guri kasu. Hizbullahren segurtasun zerbitzua dela azaldu digu

motorrean doan gazteak. Kanpotarra zelatatzea betebeharra da beraientzat, zibilez jantzita doazen Israelgo soldaduen infiltrazio saia-kerak pairatu baitituzte hainbatetan. Israelek ez du inoiz arrakastarik lortu infiltrazio ahalegin horietan. Eraikinek, berrizaturiko pisuen bloke handiek, “estatuaren barneko estatua” eraginkorra dela frogatzen dute. Duela hiru urte auzoa ia erabat suntsitu zuten bonben arrastorik ez dago orain. “Eraikin guztietan Alderdiko gizonak zeuden, horiek zaintzen. Hondakinen azpian lurperatuta hil ziren asko eta asko”, nabarmendu du Husseinek, Hizbullahren jarraitzailea den adin ertaineko gizo-

**Libanoko azken
hauteskundeetan,
Hizbullah tartean duen
blokeak 200.000 bozka
gehiago lortu zituen, baina
hauteskunde sistema
sektarioak
Mendebaldearen lagunak
salbatu zituen**



gozatu euskaraz

gure artean euskaraz

BFA DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



nak. Alderdiaren prentsa-bulegoaren oniritzia jaso dugula baieztatu diogu aurretik. Khomeiniren argazkien ilarak martirien irudiekin nahasten dira, hondakinetaraino birrinduak izan ziren auzoak berreraikitze beharrezkoa izan den dirutza nondik atera duten azalduz.

Baina hau ez da Hizbullah estatu bilakatzen den inguru bakarra. Herrialdearen hegoaldea zaintzen duten Nazio Batuen Finul eta Libanoko Armadaren kontrola igaro eta berehala, Kalashnikov fusila eta martirien irudia dituzten bandera horien ilarek erakusten dute nora bidea. Hassan Nasrallah-k zuzentzen duen alderdiaren irudiekin batera Amalen bandera berde bakan batzuk ere ikus daitezke. Han aurkitzen da Kham espetxea, 1982tik 2000ra okupatzaile israeldarrek egin zituzten sarraskiak erakusteko gaur egun parke tematiko bihurtua. Ali Khamal-ek, Hizbullahko kide ohiak, israeldarren okupazioaren azken sei urteak eman zituen espetxe horretan. Orain 42 urte ditu eta soldadu israeldarrak presoak nola torturatzen zituzten azaltzen du. Preso guztiak Libanon atxilotu zituzten erresistentziarekin bat egitearen akusaziopean. Kartzela toki estrategikoan dago: 1967tik Israelek okupatzen dituen Golaneko gailurrak eta Sheebako baserriak —oraindik Tel Aviven eskuetan dagoen lurralde libanoarra— begi-bistan dituen dagoen lurralde libanoarra— begi-bistan dituen muino batean eraiki zuten espetxea. Lurralde hauen okupazioa da Hizbullahk armei eusteko duen arrazoi nagusietakoa.

Khiameko kartzela oihan, 50.000 libanoar baino gehiago atxilotu zituzten militar israeldarrek.

Khamalek espetxeko ziega guztiak erakutsi dizkigu, Tsahalek (Israelgo Armadak) Libanoko hegoaldea zigortu zuen *made in USA* armekin batera. Orain ez da apenas ezer gelditzen, baina irekita zeudenean 300 preso biltzen zituzten hiru galeriek. Israelen bonbardaketek erabat suntsitu zituzten 2006ko ekainean, okupazioaren bi hamarkadetako arrastoak erroitik ezabatzeko ahaleginean, Khamalek dioenez. “50.000 libanoar baino gehiago pasa zen militar israeldarrek zaintzen zituzten zulo beltz hauetatik”. Haietatik, ehunka torturatuak izan ziren. “Zortzi kide hil ziren”, nabarmendu du gida bizardunak. Zaindarien hiltzeaz zeuden presoak espetxearen atetan uzten zituztela gogoratu du.

Abdel Amir martiriaren balentria

Martiriak gogoratzea oso hedatuta dago Hizbullahk kontrolatzen dituen eremuetan. Baita Israelen aurkako ekintza militarrek gogoan izatea ere. Abdel Amir Muhammaden historia Jainkoaren Alderdiko kideek kondaira bilakatu duten ekintza horietako bat da: “1995eko uztailaren 6an, borrokalari bakar batek sei kamioiz, hiru ibilgailu korazatuz eta bi autoz osaturiko konboia eraso zuen”, kontatu digu Emad Awada-k, Hizbullahko buruzagietako bat Nabatiyeh herrian. Tontorrean Beaufort gaztelua duen mendixkaren pean kokatzen da Nabatiyeh. “Lehegailu ugari eztandarazi zituen eta zauririk gabe atera zen. Une horre-



tan, israeldar ibilgailuetako baten barnean teniente bat zegoela ikusi zuen eta sua zeharkatuz granada bat eraman zuen berarekin, autoaren barrura botatzeko”. Orain, Abdel Amir Muhammad erresistentzia islamikoaren “martiri bizidunetako” bat da.

Beaufort gaztelua palestinar erresistentziaren eszenatokia ere izan zen 1982an, Arafat buru zutelarik, Palestina Askatzeko Erakundeko (PAE) agintariek Libano utzi behar izan zuten arte. “Nerabe talde bat gehiago irauterik izan ez zuten arte egon zen gazteluan, eta israeldarren zazpi buruzagi militar hil zituzten”, dio Ewad Amadak, inguruan dauden gaztetxoek modu militarrean agurtzen duten bitartean. Israeldarren okupazioak iraun zuen bitartean 1.800 libanoar hil zituztela gogoratzten du Hizbullahko agintari honek. “Palestinarrak ere hil ziren”, gaineratu du. Hori esan eta gero, azkar alde egin du. Ostirala da eta Nabatiyehn Hizbullahren egoitza berri bat zabaldu behar dute, 2006an suntsitu zutenetako bat ordezkatzeko duena.

2006an lortu zuen garaipenak Jainkoaren Alderdia “erresistentziakoa eta libanoarra” zela frogatu zuen, Haj Hatemek Hizbullah definitzen duen moduan. Alderdiko nagusiek badakite sostengu irmoa dutela eta “hegoaldeko arerioaren” aurrean probokatzaile azaltzen dira. Pasa den abuztuaren 8an hala egin zuten: ehunka militante zaldi-martxa egin zuten Khiamdik Israelgo mugan dagoen Kfar Kila herriraino. Bertatik, 1948. urtetik eraiki dituzten kibbutz (nekazaritza-komuna israeldarra) batzuk ikus daitezke. Hesian, soldadu israeldarrak muturraren punta baino ez dute erakusten. Mugako postuetan, Libanoko Armadako kideak. Eta alde batera, Finuleko parte diren soldadu espainiarrak. Atzerriko

Ezkerrean, Israelen aurkako azken gudaren hildakoen oroigarria, Baalbek-en. Eskuinean, xiiten meskita Baalbek-en, Beirut hegoaldeko auzo txiroan.

Hizbullahen benetako indarra bertsio ofizialaren arabera “kontrolatzen ez dituen” lurraldeetan ikus daiteke. Beiruteko Dahie auzoan ez dute lekurik Armadak eta Poliziak

militarrak aukera ezin hobea dira Libanoko eremu txiroenetako dendariantzat.

Abuztuko egun horretan, El-Mahdiren jaio-tzaren urteurrena ospatu zuten, xiiten sinesmenaren ezkutuko imanarena. Hizbullahko kideek gogoratu nahi diote estatu sionistari oraindik hegoaldera begira daudela. “Gure borroka palestinarren eta Jerusalem aldekoa da. Palestina da jatorrizko arrazoia”, dio Emaid Awadak. Israel, bion arerio komuna da. Astebete geroago alderdiaren idazkari nagusia izan zen, bideokonferentzia bidez, israeldarrei abisua luzatu ziena: “Tel Aviv bonbardatuko dugu beraiek Beirut erasotzen badute”. Abisua data esanguratsu batean bota zuen, abuztuaren 15ean, Hizbullah eta Israelen arteko azken enfrentamenduen hirugarren urteurrenean. Indartsu diren beste

froga bat. 20.000 pertsona baino gehiago bildu ziren Dahien, Beiruteko hegoaldean dagoen auzoan. Hamar solairu baino gehiago dituzten inguruko eraikin guztietan, frankotiratzailak. Pantaila erraldoian, Al-Manar telebistaren irudiak, Israelen aurka buruturiko ekintzekin, eta gonbidatuen artean, Libanoko parlamentuko alderdi askoren ordezkariak. Mitin erraldoi horretan, zehaztasunez neurtua zuten argazkilariek noiz hartu zitzaizketen publikoaren irudiak.

“Gure irmotasuna izan da Israel gelditu duena. Beraiek dira erasotzaileak”, berrestu du Emaid Awadelek. Diskurtso berrari eusten dio Haj Hatemek: “Israeliek gerra berri bat hasi dezake, baina ez daki noiz amaitzerik izanen duen”. Halere, datozen urteotan beste enfrentamendurik ez dela izango uste du Nasrallah. Nahiz eta miliziak borrokarako prest dauden, libanoar guztien erreferente bihurtzea da Hizbullahen politika. ■

www.argaia.com/multimedia
helbidean, erreportajearen diaporama.

«Prozesu parte-hartzaileak soilik meza nagusiaren ordua erabakitzeke dira?»

Eliteko kirolari zenbaitek panikoa diote kirol-bizitza osteari. Ez da samurra, argitik itzalera pasa, eta urteetan sortutako burbuila zulatu eta errealtatearekin topo egitea. Baina batzuegan berezkoa da birziklatzeko sena.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Ematen du kirolari edo kirolari ohi batek kirolaz baizik ezin duela hitz egin.

Eliteko kirolaren inguruan sortzen den burbuilaren ondorio bat baizik ez da hori. Batzuen kasuan topikoa betetzen da umetatik diru-usaínean burbuila horretan sartuta egon den ume baten heziketa ezin delako taxuzkoa izan, baina gehienetan ez da hala, eta errealtateak erakutsi dit kirolarien artean ere oso jende kezkatu eta jantzia dagoela. Nola ulertu bestela, urtearen azkenetan, Euskal Herriko kirolariek Kirolhaerriaren baitan emandako urratsa? Analisi mamitsu bat egin eta konpromiso sakon bat hartzeko gai den jendea agertu da hor.

Zure garaian Espainiako selekzioarekin aritua zara. Nolakoa da kirolari euskaldun batek pauso hori ematerakoan duen barne-borroka?

Barne-borroka horrek mundu oso bat dakar mahai gainera. Ezkerreko eta abertzale sentitzen nintzen orduan ere, eta nire burua ez nuen ikusten piper-potoaren defentsan. Oso garbi neukan selekzioa ukatuko nuela. Baina bizitzako beste arlo askotan bezala, unea iritsi arte ez dauzkazu egoera analizatzeko premiazoak diren parametro guztiak, eta hasieran ezezkola eman banien ere, nire helburu pertsonal zein kolektiboak aintzat hartuz, joatea hobetsi nuen azkenean. Batek selekzioari ezetz esateak bi urteko inhabilitazioa zekarren, horren ondorio profesional guztiakin, eta bestetik, banekien pertsona bat markatuta edo erreta dagoen momentutik bere mezuek ez zeukatela eraginkortasunik.

Kirol ibilbidean pilatutako esperientziak balio dizu alkatetzarako?

Uste baino askoz sentsazio freskoagoak daukat, udaleko eguneroko martxan eskubaloí jokalaria nintzela bizitako egoera antzekoak egokitzen zaizkidalako. Esango nuke urtetan ikusitakoa eta bizitakoa buruan daukadala eta inkontzienteki erabiltzen dudala, baina bologo dabiltnan kontu batzuk desmitifikatu behar direla uste dut. Aldagelako giroarena, esaterako. Kanpotik, emaitza onak direnean, dena margotzen da arrosa kolorez, baina 20 laguneko aldagelan ezinezkoa da denekin primeran eramatea inbidiak areagotu baizik egin ez dituen mundu elitista batean. Bakoitzaren historia eta jatorria hartuta, zure txokoa egiten asmatu behar duzu, zure lagun taldea, eta besteekin ahal bezain harreman eramangarri eta jasangarria izaten saiatu, denak helburu beraren alde borrokatzeko gisan. Udalean bezala, funtsean.

Politikari batek izan dezakeen ohore handiena norbere herriko alkate izatea dela dio Sabin Intxaurrek.

Nortasun agiria

1964ko abuztuaren 12an jaio zen Usurbilen (Gipuzkoa). Informatikaria ikasketaz, eskubaloí jokalaria gisa egin zen ezagun, Bidasoa, Teka, Ciudad Real, Ademar edo Portland San Antonio bezalako talde handietan arrastoa utziz. Espainiako selekzioarekin bederatzi aldiz aritua, Usurbilgo alkatea da egun.



• PERTSONAIA •

Xabier Mikel Errekondo



Dударик ez dago ohorea itzela dela. Hasierako ezjakintasunari gogo, ilusio eta asmo onenarekin egiten diozu aurre, jabetzen zaren arte kontrakotasunak, herrigintzak baino gehiago, alderdi interesek eta ezinikusi pertsonalek sortzen dituztela. Gainontzean, pertsonalki, tratu eta harremanean, izugarri aberasten zaituen kargua da. Herritarrek ezagutzen joaten zara, eta ikusten duzu interes altruista asko dituztela baina baita interes pertsonalak ere, eta kontraesan horietatik izugarri ikasten da. Baina, oroz gain, ni hemengoa naiz, beti izan dut Usurbil ideal bat buruan, eta norabide horretan proiektuak bideratu eta gauzak martxan jartzeak satisfazio handia dakar.

Gustura egongo zara hondakinen atez ateko bilketak hartu duen bidearekin.

Aitzindaritzat markatu dugula uste dut, ez bilatu dugulako, hasiera-hasieratik proiektuan sinetsi genuelako baizik. Guretzako ez dago ingurumena eta osasuna baino garrantzitsuagorik, eta horiek bermatzeko modu bakarra (tamalez) atez ateko hondakinen bilketa da. Hasiera-hasieratik izan genuen garbi prozesu parte-hartzailea izan behar zela, eta hastapeneko informazio faserat 1.600 herritar inguratzea lortu genuen. Baina hori ez da nahikoa, eta inkestek argi adierazten dute lehen urrats horietan zaila dela sinesgarritasuna irabaztea, teoria hutsarekin ari zarelako. Praktikak erakusten du bidea, eta %36a alde

egotetik %68ra pasa gara: zalantzan zeudenen bi heren eta aurka zeudenen laurdena alde jarri dira. Praktikak jarri du jendea alde, praktikak eman digu sinesgarritasuna, benetakoz zilegitasuna; eta praktikak erakutsi du ohitura aldaketa bat baino ez dela, arazoari irtenbidea ematen diola, ez dela garai bateko usain txarreko aldrebeskeria bat... Oso garrantzitsua da jendeak kolore politikorik ez duen proiektua dela ulertu izana. Ez da udal baten arazoa, gizarte guztiarena baizik, eta atez atekoa Usurbilen soilik eginda ez da gizarte osoaren arazoa konponduko.

Kolore politikorik ez duen proiektua izan arren ez al da joko politikaren menpe dagoen asmo bat?

Kolorerik ezarena argi dago, eta hasiera-hasieratik eztabaidak ahalik eta maila teknikoenean aurrera eramanez, hori transmititzea lortu dugula uste dut. Ez dugu sekula gure proiektua denik esan, udalarena eta herritarrena baino. Denon ahalegina da eta denok ikusi behar dugu geure burua ispilu horretan islatuta. Hori hala, egia da joko politikoa hor dagoela, eta trabak ere jarri dizkigutela. Nahiko esanguratsua da, hondakinen kudeaketan aitzindariak izanik, eta horretarako diru-laguntza bereziak egonda, aurkeztu ditugun lau proiektuentzako Foru Aldunditik txakur txiki bat ez jaso izana. Ez daukat dudarik proiektua %100ean esporta-

garria dela, baina horretarako ondo etorriko litzaiguke beste herri eta udalerrietan hondakinen arazoak kolorerik ez duela ikustea. Bitartean, herrian herriko udal-gobernuaren borondate politikoaren baitan egongo da dena, eta batzuk beti egongo dira kontra, atez atekoa benetako soluzioa dela ikusi eta beste irtenbiderik geratuko ez zaien arte.

Erraustegiaren mamuak bizirik dirau?

Bizi-bizirik. Zoritzarrez, orain hamarkada pare bat ez bezala, egun zail egiten da proiektu injustu eta kaltegarrien aitzinean herritarrak aktibatzea. Gainera, herritarrek pasiboki jasaten dituzten egitasmo erasokor andana dago. Horrek izugarri zailtzen du benetako kontraindar batek eskatzen duen metaketa sortzea. Horixe gertatu da errauskailuarekin. Baina horrek ez du esan nahi mehatxua benetakoa ez denik. Indarririk badugu, oraintxe da momentua erraustegiaren aurka plantatzeko. Atez atekoarekin bide horri ekin diogu, alternatibarik badela erakutsiz, eta erraustegi toxiko munstroaren proiektua inguruko herrietara eramatea jendea mobilizatzeko akuilu izan daiteke. Ziur nago kontraktasuna adierazten asmatuko dugula, eta Aldundiak eta Donostiako Udalak interes ekonomiko hotz hutsen eta ia 400.000 gipuzkoarren osasunaren artean erabaki beharko duela. Guk argi daukagu.

Etxe horietan parte-hartzearen beste kontzeptu bat daukate.

Eta alferkeria politikoa, herritarrei hastapenetik parte hartzeko aukera ematea lana eta konpromisoa delako oroz gain. Baina kontzeptu askorekin egin duten gisan, parte-hartzea ere mediatikoki prostituitu dute. Prest daude kale baten nolakotasuna foro parte-hartzaile batean erabakitzen uzteko, eta ondo iruditzen zait, baina proiektu garrantzitsuagoekin zer? Zer gertatzen da erraustegia edo AHTa beza-

lako atzera-bueltarik gabeko proiektuak ezkutatuz ukiezin bihurtzen dituztenean? Prozesu parte-hartzaileak soilik meza nagusiaren ordua erabakitzeke dira?

Herritarrek iritzia emateko aukeraz ari garela, berriki onartu dizuete atez ateko hondakinen bilketari buruzko erreferenduma antolatzeke baimena. Emaizak kezkatzen zaitu?

Ez, udal baten egunerokotasunean aurrera egiteko erabaki asko hartu behar badira ere, gai bat herritarrekin landu, prestatu eta erabakitzea deliberatzen den unetik, ondorio guztiekin egin behar direlako gauzak. Horretarako ordea, urrats guztiak ondo baino hobeto eman behar dira, garaia heltzean, herritarrak erabakitzeke tresna guztiak eskuetan izan ditzan. Hasteko, informazio garbia eta zuzena eman behar duzu, eta zentzu horretan, ikaragarria da hastapeneko prozesu parte-hartzailean 1.600 lagun bertaratzea, Usurbilek 6.000 biztanle izanik. Bidea tentuz, urratsez urrats, ibili dugu eta bilketa hasi aurretik %36 bazegoen alde eta gehienak zalantzan, egun orduan alde zeudenek

alde segitzen dute, zalantzan zeudenen bi herenak alde egotera pasa dira, eta aurka zeudenen laurden bat alde dago. Hori gutxi balitz, %71k erantzuten du harro dagoela egindako ahaleginarekin. Zer esan nahi du horrek? Batetik, atez atekoa benetako aterabidea dela, eta bestetik, galdeketa baldintza serioetan egin ahal izateko proiektua esperimentatu eta probatu behar dela aurrez. Hori hala, galdeketa izango da proiektu honen zilegitasunaren berme handiena, udalak plenez erabaki baitzuen emaitza loteslea izango dela eta, emaitza aldekoa den kasuan, inoiz bilketa sistema aldatu nahi izanez gero bide bera erabili beharko dela.

Atez atekoa utzi eta jo dezagun egoera politikoaren atea. Nola egiten da politika ilegaliza-

"Kirolarien artean bada oso jende jantzia. Kirolhaerriaren baitan, analisi mamitsu bat egin eta konpromiso sakon bat hartzeko gai den jendea agertu da"



ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com





OFF THE RECORD

Hondakinak

Piztu genuen grabagailua, joan ziren galderak, etorri ziren erantzunak, baina Xabier Mikelen ahoan ez zen "zabor" hitza agertu, dena zen "hondakin". Marketin edo komunikazio ahalegin hutsa zela pentsatu nuen hasieran, baina ez, kultura eta ohitura aldaketaren isla baino ez zen. Zaborra hondakinak nahastea da. Bereizita jasotzen den orok uzten dio zabor izateari berrerabiltzeko lehengai bihurtuz. Hitz berak Azkuna edo Otegiren ahoan esanahi bera zeukan galdetzen zuen Xabier Gantzarainekin akordatu nintzen lehenbizi; "Kontua ez da hitzek zer esan nahi duten, nork agintzen duen baizik" idatzi zuen Lewis Carrolekin gero. Eta bai, zaborrek gobernatzen duten hondakin bat baizik ez da mundua.

tuta eta zure alderdiko alkateak kargutik kentzeko ahalegin nabarmenarekin?

Damoklesen ezpatapean. Ilegalizazioaren mamua lehen egunetik izan dugu bizkar gainean, ez dugu sekula jakin legegintzaldian zer ibilbide egin ahal izango genuen, eta beste alkate batzuei eginiko eraso bortitz eta burugabeek gainontzekook ere dianaren erdian jarri gaituzte. Horretaz gain, ANV ilegalizatzean, gure lan tresna ahuldu egin zuten, eta kriminalizatzeko ahaleginean beldur arrastoak utzi zizkigutela nola ukatu. Ez dakigu prentsaurreko batera gauza zenbait esatera joan gaitzkeen, eta denborak pilota hori pixkanaka irensten badu ere, arriskua beti hor dago. Oraindik ere estatuko indarren benetako nahien igitaiaren mehatxupean jarraitzen dugu. Pentsa, alderdi nagusiak hurrengo hauteskundeetarako euren estrategiak finkatzen hasiak direnean, gu ilegalizatuta gaude, eta aurkezterik izango dugun jakin ere ez dakigu.

Ezker abertzaleak aurkeztu berri duena Altsa-suko proposamena da. Bidegurutze historiko baten atarian egon omen liteke. Nola ikusten duzu?

Euskal Herriaren historian une garrantzitsu asko izan badira ere, nago oraingoan oso momentu klabe bezain aberasgarri baten aurrean gaudela. Edukiz betetako eltze bat dago borborka eta begi-belarriak irekita dauzkan edonor asetzeko aukera dago. Ezker abertzalea beti izan da ausart eta anbiziotsua, eta

zentzu horretan, independentzia eta sozialismoa bezalako helburu gorenek hor jarraitzen dute. Proposamenean planteatzen dena da bide horretan zer urrats eman, zer norabide hartu. Niretzako gure gorputz osoarekin egiten dugun apustua da, orain arte behar hainbat erabili ez ditugun bide batzuetan sakontzeko apustua. Etsaiak hor daude, baina gu ezin gara zer egingo duten zain egon. Garrantzitsuagoa da gu zer emateko gai garen hausnartzea, eta zentzu horretan, ildoak oso zuzen eta zehatz enfokatuta daudela iruditzen zait. Nor gara euskara, kirola, kultura, hezkuntza... finean herri honen burujabetza nahi dugunak? Bide horretan bilduz izango dugu etsaiaren aurrean inoiz indarririk gehien, hainbeste non estatuaren erantzun-oldarraldiak ohartaraziko gaituen egiten ari garen bidearen balioaz. Horregatik, herriaren aktibazioa behar-beharrezkoa izango da prozesu guztia bermatzeko eta bidean gertatuko diren astakerien aurrean iparra mantentzeko. Estatuaren oldarkeria hasia da eta astakeria geroz eta handiagoak egingo ditu, baina etorriko diren kolpeen indarra, malkoak eta odola aurrera egiteko baliatu behar ditugu, norabidez aldatu gabe, gure asmoarekin aurrera jarraituz. Hori jakinik, independentziara bidean bilduko garen eragile eta herritarrok ez dugu ahaztu behar gure artean diferentziak egonik ere, helburu gorenari begira eta batzen gaituenaren inguruan egin behar dugula lan. Hori lortuz indarrak batzen baditugu estatua ahul egongo da. ■

• Itziar Ziga •

«Feminitate hitzari alergia harrigarria diogu feministok»

Devenir perra (Zakur eme bihurtu) liburua idatzi du, feminista femenino eta antipatriarkalak existitzen direnez, beharrezkoak direla aldarri egiteko. Erosi bezain pronto puskatu zaion koroa jantzi du, sos gutxiko glamourra argazkiko lehen planoan ateratzeko.

AMAIA ALVAREZ URIA

ONINTZA IRURETA

Argazkiak: Alex Larretxi

ERRENTERIARRAK (Gipuzkoa, 1974) Iruñearako bidea hartu zuen aitaren autoritatetik ihesi. Amari tratatu txarrak ematen zizkion aitaren atzaparretatik ihesi. Iruñean Elizaren autoritatea ezagutu zuela dio. Bederatzi urte egin ditu Bartzelonan, askatasunean, eta Iruñeara itzuli da. Espainian zehar dabil *Devenir perra* liburuan kontatutakoak lau haizetara zabaltzen. Ez dakigu noiz errendituko den, bigarren liburua atera berri baitu: *Un zulo propio* (Norberaren zuloa).

Alaska abeslariaren liburua: *Transgresoras, las mujeres que cambiaron su mundo*, (Urratzai-leak, euren mundua aldatu zuten emakumeak). Alaska feminitatearen maitale handia da eta kexu da uste duelako feminismo hegemonikoak (nolabait esatearren) trabestien eta transexualen ekarpena galdu duela feminitatea berrasmatzeko.

Garai hartan *king* tailerrak egiten ziren, maskulinitate performatiboaz asko hitz egiten zen, eta nik nioen: “Non arraio dago





feminitate performatiboa?”. Feministok alergia harrigarria diogu feminitate hitzari, logikoa da, ziria sartu digute emakume generoaren kontuarekin, dena da negatibotasuna eta gutxiagotasuna.

Badago ordea bestelako feminitatea, grinatsua, parodikoa, teatrala, puta eta antipatriarkala. Hori existitzen da eta oso beharrezkoa da. Beharrezkoa da existitzen delako.

Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministetan
“Iraultza dibertigarria izango da
edo ez da izango” esan zen. Zer
gehituko zenioke horri?

Ez nioke ezer gehituko, hori da. Ez nekien hala izan zenik eta asko pozten naiz. Emma Goldmanek hala zioen: “Ezin badut dantzarik egin ez da nire iraultza”. Badago gizon eta emakumearen gudari jarrera, borrokaren zati onartu dugu. Ulergarria da, biolentzia askok gurutzatuta gaude, eta hainbesteren kontra egin behar dugu borroka... Erne ibili behar dugu, baina bizimodutzat hartzen badugu jarrera hori ziria sartu digute.

Ez dakit noiz hilko naizen, baina munduak segiko du izaten kapitalista, patriarkala eta kastroia populazioaren gehiengoarentzat. Bizi naizen artean ez ditut onartu nahi zoriontsu izatea eragozten didaten kateak.

Liburuan diozu: “Emakumea naizela diot sendagileak hala diagnostikatu zuelako eta estrategia politikoa delako”.

“Lehen genero biolentziaz
feministok baino ez genuen hitz
egiten, eta orain modan jarri
denean zertarako jarri da modan?
Heroiak gizonak dira, ez gu”

Emakumea izatea zer den erakuste bidean transen, trabestien eta intersexen borrokak garrantzitsuak izan dira. Emakume ala gizon, mediku diagnostikoa eta soziala dela ukatzen duena esentzialismotan erortzen da, ez dute nire errealtatea azaltzen. Feminismoa emakume generoaren lubakian gorde zen, baina hori alde guztietatik erortzen da. Emakume eta gizonen arteko banaketa patriarkatuaren aldetik medikuntzan oinarritua da eta gure aldetik estrategia politikoa. Emakumea naiz, gisa horretara bortxatua izan naizelako; fisikoki, sexualki,

afektiboki, ekonomikoki, sinbolikoki... Deiar egiten dut emakumea naizela, baina ez hanka artean daukadanagatik.

“Okupa jaietara ilehori distiratsu eta arrosaz jantzita noa (...). Oraindik jokoz kanpo uzten ditut nire itxura dela-eta”. Liburuan elkarrizketatu duzun Paulak esana da.

Europako mugimendu alternatiboez maiteminduta, Bartzelonara iritsi zen Paula feminista eta etxe okupa batera joan zen lehen aldiz, arrosaz jantzita, samurtasun eta feminitate muturrekoarekin. Gerlariaren estetikak, rastak, krestak... ez zuen onartu. Beti esan izan du bakarrik mozkortu zela han.

Ni neu garai batean mari-mutilez mozorrotu nintzen. Feminista askok hasten dugu bide hori, baina ilea moztea, ez depilatzea... probatu ondoren eroso sentitzen baldin banaiz zoragarria da, baina ez

banago eroso zailtasunak dituzu feminizatzeke. Beste testuinguru batzuetan hori da espero dena, feminizatzea. Beldurgarria da, beti ere derrigortzen bazaituzte!

Liburuarekin ez dut nahi inork pentsatzea feminitate mota bat goraiatzeko ari naizenik, ezta gutxiagorik ere.

Liburuko beste pasarte bat: “Zakur emeek barre egiten dute aberatsen kodeez, Pradako poltsa erdi hutsez eta krisia medio daukaten susto aurpegiaz. Barre egiten dute krisiaz, krisia delako ezagutzen duten bizimodu bakarra”.

Zakur emearen eraikuntza egiten dut, baina zakur eme oso txiroa naiz. Feminitate espektakularra eraikitze horrek zerikusia dauka glamourraren ilusioarekin, inguratzen gaituen pobrezian glamour merkea aldarrikatzen dut.

Liburua idazten ari nintzela etorri zen krisiaren izu kolektiboa. Prekarioa zarenean, etxean hotza pasatzen duzunean, argia pintxatua duzunean... barkatu, ez dauzkat bost hipoteka, ez lidakete inoiz emango kreditua. Klase kontzeptua ezinbestekoa da.

Zer diozu egunkariko titular honi buruz: "Juan Pablo Urtizbereak Berdintasunaren Merezimenduzko Domina jasoko du". Senarrak Yasmín Zamia emaztea hil zuen. Zamia salbatzen saiatu zen Urtizberea eta larri zauritu zen.

Gizonen bortizkeriatik gizonak beraiek babesten gaituzte. Guk geure buruak defendatzea gaitzesgarria da. Domina merezi duena liburuan aipatzen dudana emakumea da. Bikote ohiak aizkorarekin hil behar zutenean bera labanarekin defendatu zen. Emakume horretaz ez da hitz egiten, eta nik dakidala aspaldian heriotzatik ihes egitea lortu duen bakarra da. Defendatu zelako salbatu zen.

Jakina lagundu behar dela norbait zure begien aurrean erasotzen ari direnean. Baina zergatik dira heroiak berriz ere gizonak? Gaixotu egiten nau horrek. Lehen genero biolentziaz feministok baino ez genuen hitz egiten, eta orain modan jarri denean zertarako jarri da modan? Heroiak beraiek dira, ez gu. Etengabe erakusten dituzte emakumeak untxiak bezala hiltzen, ihes egiten, urrutiratze agindupean. Urrutiratze agindua ez, autodefentsa! Pistolak, espraiak edo ikastarokak, dena delakoa! Gizona izan beharra ere babestuko gaituena.

"Udalak bi hamarkada daramatza Bartzelonaren bihotza eremu publiko ordenatua eta segurua, garbia eta zibikoa, kalitatezkoa eta askatasunezkoa izan dadin. Prostituzioa ez da onargarria hiriko kaleetan". Jordi Hereu, Bartzelonako alkatea.

Raval auzoko eztabaidaz ari zara. Bederatzi urtez bizi izan naiz auzo horretan eta mendeak dira prostituitzen direla Ravaleko kaleetan. Gauez, lana bukatuta, puten kaletik igarotzen nintzen eta lasai sentitzen nintzen. Putak eta bezeroak daude, elkarbizitza erdugarria da, baketsua. Bortizkeria ez dute praktikitzen ez prostitutek, ez bezeroek, poliziak prostituten kontra baizik.

Hipokritak eta faltsuak dira, Bartzelonako erdigunea turistentzat eta *fashion* jendearentzat parke tematiko bihurtu nahi dute. Puten bila badoaz, gu denon atzetik doaz.



"Gizon eta emakume batzuk gudari jarrera hartu dute eta borrokaren zati onartu. Erne ibili behar dugu, baina bizimodutzat hartzen badugu jarrera hori, ziria sartu digute".

Inozoa da pentsatzea beraiek ondokoa uste dutela: "Putak soberan daude, enbarazu egiten dute".

Jende ugari bestelako ikuspegia du gai horri buruz. Ez dute nabari zuk nabari duzun segurtasuna.

Ez dira handik pasa. Ez dira han bizi. San Ramon kaleko espaloiak puten takoei mendeetan miazkatu dituzte. Han bizi den jendeak badaki zer dagoen eta prostituzio eremua saihestu nahi baduzu bi kale harantzago jo eta ez daukazu ezer ikusi beharrik.

Segurtasun gabezia eta emakume esplotatuak aipatzen dituzte.

Putak ilegalei lagundu nahi badiezu indargabetu Atzerritarren Legea. Mafia horiek zeinek onartzen ditu? Atzerritarren Legeak.

Beste kontu bat umeena da. Ez naiz ama, baina haurrak izango banitu beraiek polizia-rengandik babestea nahiko nuke, putak baino askoz kaltegarriagoak dira. Amek ez badute nahi umeek putak ikusterik saihestu ditzakezu Ravalen, eta handik pasako bazara poliziarekin arazorik eduki ezean, toki segurua da. Mendeak daramatzate han! Sarekada izan eta batere ez dagoenean, isiltasun moduko zerbait sentitzen duzu, deseroso sentitzen zara. ■

• Argentinako desagerraraziak •

Clarín ahaltsuaren jabea auzitan

Marcela eta Felipe Herrera Noblek –Clarín taldeko jabe ahalguztidun Ernestina Herreraren seme-alabak– DNA probak egin zituzten joan den abenduaren 30ean. Argentinako diktaduran desagerraraziei bahitutako seme-alabak izan daitezke Herrerak 1976an –irregulartasunez beteriko auzian– adoptatutako bi gazte horiek.

ÁLVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN

MAYO PLAZAKO AMONEK duela zortzi urte jarritako salaketa aintzat hartuz, Roberto Marquovich epaile federalak Ernestina Herrera atxilotu zuen, agiri publikoak faltsutzea eta adin txikikoak ezkutatzea leporatuta. Clarín taldearen abokatuek lortu zuten, ordea, gogo-koago duten Carlos Bergesio epaileak ordezkatzeari Marquovich. Diktadura garaietako justiziari lotuta, zortzi urteren ostean Bergesiok ezer gutxi egin du auzia argitzeko; izan ere, Auzitegi Federalak behartuta agindu du azkenean Marcela eta Felipe DNA probak egin. Bergesiorena ez da prozedura garbia izan: batetik, probak ez ziren Durand ospitalean egin, legeak esaten duen bezala; eta bestetik, desagerrarazien familia birekin baino ez zituen datuak alderatu (Gualdero-García eta Miranda-Lanoscou) haiekin odol harremanik ez dutelakoan. Proba eta lagin gehiago lortzeko eskatu zuten Amonek, Marcelaren eta Feliperen DNA beste 22 sendirekin erkatzeko. Beraz, hemendik aurrerako erabakiak funtsezkoak izango dira.

Chicha Marianik, Mayo Plazako Amonak taldearen sortzaileak, betidanik pentsatu du duela 34 urte bahitutako bere biloba Clara Anahi dela benetan Marcela Herrera. 1976ko azaroaren 24an, militarrek Marianiren semearen eta errainaren etxea bonbardatu zuten, La Plata hirian. Hiru hileko Clara Anahi txikia han desagertu zen.

Camilo Cagni desagerrarazien seme eta kazetariak dio, bestalde, Durand ospitalean gordetako laginekin DNA alderatzen dutenean Clarín taldea dardarka hasiko dela: “Truzur gisa hasi zenak ezin du aurrera jarraitu, Chicha Marianik egia merezi duelako, Ernestina Herrerak gerra trofeo moduan jaso baitzituen umeak”. Bidea baina, ez da erraza izango. Mayo Plazako Amen prentsa zerbi-



Chicha Mariani. Atzean semearen, errainaren eta bilobaren argazkiak.

Nor da Ernestina Herrera?

Ernestina Herrera de Noblek (1925) Clarín taldea zuzentzen du, *holdingari* izena ematen dion egunkaria sortu zuen Roberto Noble senarra 1969an hil zenetik. Argentinako hedabideetako talde nagusia da Clarín, hainbat telebista (Canal 13, TN, Volver, Multicanal, Cablevisión), irrati (Radio Mitre, La 100) eta egunkari (*La Voz del Interior*, *Diario de Los Andes*) dituen. Nobletarrek ondo baino hobeto kudeatu dute euren indarra, beti botere politikoari atxikita, diktadura militarretan barne. Askoren ustetan, militarrei emandako zerbitzuak zirela medio jaso zituen seme-alabak Herrerak.



Ernestina Herrera seme-alabekin.

tzuko Lucia Garciaren esanetan, ez da ziurra auzitegiko medikuek lortutako laginak zein Auzitegi Federalak indarrez lortutakoak Duranden ikertuko dituztenik. “Zergatik ezkutatzen dute Marcelaren inguruko guztia? Zergatik horrenbesteko asmakeria? Zertarako? Hor atzean gauza larriak daudelako”, dio biloba berreskuratu nahi duen Chicha Marianik. Auziak aurrera jarraitzen du. ■

Bertso Eguna 2010

Urtarrilaren 30ean
Donostiako kaleetan
eta Kursalen

hustubete hustu

- 12:00etan, **KALEZ KALE**
Donostiako Alde Zaharrean
- 18:00etan, **EKITALDI NAGUSIA**
Kursaaleko Areto Nagusian
- 21:00etan, **AFARIA eta FESTA**
Kursaal Martin Berasategi Jatetxean

Antolatzaileak:



Babeslea:



Laguntzailea:




Argazkian ez ateratzeko ariketak

Bulegoan lehenengoz sartu zenean, baietz esango zuen Bartlebyk, egingo zuela eskribau lana. Denborak aurrera egin ahala, ordea, zerbait eskatzen zionean beti erantzuten zion honakoa nagusiari: aukeran, nahiago ez. Giorgio Agambenentzat, besteak beste, Bartleby izkribatzai-learen erantzuna desobedientzia aukera adimentsua izango litzateke. Hori izan daiteke halaber José Luisek joan den astean zioenaren harira, telebista ikusteko hirugarren-go modua.

Agamben pentsalari ezinbesteko horietakoa dela esatera nindoan, baina ez ditut neureganatuko kritikariek eta analistek erabiltzen dituzten esaldi kanonizatzaile tentagarrietako bat: erakusketa hau, liburu hau, artelan hau, zientziaren asmakizun hau, jaki hau, telebista saio hau, ezinbestekoak dira. Kanonizatu nahi dutenek normalean beharra izaten dute bere inguruan nola-baiteko sistema arautzaile—eta “auraz” beterikoa—sortzeko, goraipatu duten, artelan, idazle, artista edo musikariarekin nolabaiteko anaitasuna sortuko bada—gutxitan esan daiteke sortzen dela ahizpata-suna edota arrebatasuna—. Izatekotan hemen ezinbestekoa den bakarra, oihanaren erdian bizirau-teko bada ere, norbanakoak pentsatzeko, sentitzeko eta irudimena izateko gaitasuna garatzea litzateke.

Ana, Jose Luis, ttakunkideak. Aitorpen ozen bat egin behar dizuet. Iritsi zaizkidan gonbite batzuei “aukeran nahiago ez” esan diet azken urteotan. Umorez eta alaitasunez, hori bai. Aukeran, nahiago argazkian ez atera. Aukeran, nahiago modu ikusezinean burutu izkribatzaile lanbide hau. Aukeran, nahiago telebista ez piztu. Umorez eta alaitasunez, nola ez.



Eskribau hitza kopiatzaile modura itzuli ere itzuli da. Printzipioz idazleok ez ei gara kopiatzaileak, hau da, sormen lanaren bitartez ideiak, gogoe-tak, narrazioak, poemak eta abar paperera eramateko gaitasuna dugu ezaugarri. Papere-ra, ordenagailuaren pantailara, bideora, telebistara. Espaziora eta denborara, halaber. Ideiak inorenak edo hobe esanda

denonak izan daitezkeela ez da azaldu beharrik, ezta? Edo bai? Ideiak inorenak ez badira, denok baikara kopiatzaileak. Eta ideiak denonak badira, orduan ere kopiatzaileak. Orduan?

Baietz esatea eta ezetz esatearen erdian, badago baietza eta ezetza deuseztatzen dituen tarteko erantzuna: aukeran nahiago ez. Umorez edo sutan amorratuta. Iragan asteotan hemen izandako eztabaidaren hautsak arrotzeko inongo asmorik gabe diot. Oraingoan, gainera, baietz esan diot ttakun-

kide izateari, alaitasunez, zenbaki borobiletan agertzen zaigun 2010ean murgiltzeko. Eta orduan?

Kanonizatzaileen estetikan ez sartzeko, poetika arrakalez betetakoa, tartean dagoen idazketa eta hizkuntza erabiltzea lagungarria izan daiteke baietz horri helitzeko. Hingatutako hitzei hautsa kentzeko ere balio dezake tartean dagoen idazketak. Eta horrekin batera, lanbide—gutxi batzuetan ogibide—moduko honi ingu-

ruan jarri dioten “aura” lausotzeko. Argitu beharra dago, kasu honetan “jarri dioten” esaten dudanean, “mantentzen dugu” ere esan nezakeela. Alegia, kopiatzaile garen heinean, azkenean gehienok erabakitzen dugula argazkian edo telebistan ateratzea.

Agur modura erabili ditudan lerrootan modu errizomatikoan aipatutako gogoetak berriro hartu eta luzatzeko beta izango dut datozen (h)errenkadetan. Hori espero dut behintzat, ttakunkideak medio eta tarte. ■

Ideiak inorenak edo hobe esanda denonak izan daitezkeela ez da azaldu beharrik, ezta? Edo bai?

Ideiak inorenak ez badira, denok baikara kopiatzaileak. Eta ideiak denonak badira, orduan ere kopiatzaileak. Orduan?

Agintari frankistek
magnetofonoa eman
zioten, mendialdeko
azken euskaldunen
hondarreko hatsa
har zezan; JORGE
CORTES IZALEK
gailu hura olaztiko
irakasleari eman zion
tresna pedagogiko gisa,
eta lehen ikastola
modernoak fundatu.
Eta bigarrena, eta 3.a...
Agintearak hura gelditu
nahi izan zuenerako,
beranduegi zen;
beranduegi da.

ESKER PILA JORGE!

Arantxa Uribe

HIK HASIKO KIDEA

Sufrimenduen testigu

Belarritik tira egin digu hezitzaileoi Gasteizko Hezkuntza Sailak, Euskal Curriculumaren bidez, euskara medio, ikasleak doktrinatzan ari garelakoan.

Orain, doktrinamendua saiheste aldera akaso, sufrimenduen biktimak ikasgeletara ekarriko dituztela adierazi du. Antza, laster, dekretu bidez Hiritartasunerako hezkuntza ikasgaian sufrimenduen biktimen testigantzak ikastera behartuak egongo dira ikasleak. Gainera, ikasgaia, ebaluagarria izango omen da.

Ez dakigu zein irizpide erabiliz —ez behintzat pedagogikoak, demokratikoak, zuzenbidezkoak—, Hezkuntza Saila zuzentzen dutenek esango digute, hain juxtu, gure herrian zein diren biktima eta zein borrarero. Hori, ordea, akats zientifikoa izateaz gain, bidegabekeria historiko galanta izango da.

Lortuko ote da, biktima batzuk agertuz eta beste asko ezkutatzuz eta ahanzturara kondenatuz, jendarte kohesionatuago baten alde urrats berriak ematea? Eta horretarako ez bada, zertarako eginarazi nahi digute hori dena, benetan?

Beste garai bateko traza du horrek. Orduan, Francok, haiek sortutako altxamenduaren biktimak zein ziren garbi utzi zuen idatzirik historian. Hari, ordea, diktadura faxista deitu zitzaion.



Kontuzko ofizioa da hezitzailearena; aspaldi ikasi genuen ez gu eta ez inor ez garela egia osoaren jabe. Are gutxiago, sufrimenduari, biktimei eta herri honetako historiari dagokionean. Egia txiki askok osatzen dutela egia osoa, alegia.

Geroz eta nabarmenago uzten ari dira hezkuntza agintariak zein ezagutza gutxi duten ikasgeletako bizitzaz. Gerra garaitik desagertuta jarraitzen dutenen, fusilatu zituztenen, kartzelan eta erbestean dauden, torturatuen eta baita ETako ekintzak jasan dituztenen etxeak ditugu ikasgeletan. Langabetuen seme-alabak, lan istripuak pairatzen dituztenenak, tratu txarrak eta genero indarkeria jasan dituzteneak, baztertuta bizi direnenak. Jendarteak bere arazoen isla du ikasgelan. Eta hori guztia kudeatzen dugu egunero, denok elkarbizitzeko ahalegina eginez. Zertarako? Jendarte kohesioan sakondu behar dugulako.

Ez gaitzela gu izan, hezitzaileok, inori bere sufrimendua edo biktima sentimendua ukatzen diogunak. Aitzitik, horiek ulertu eta gehiago eman ez daitezen bideak jartzen ahalgindu gaitzen.

Inor doktrinatzeko asmorik gabe, ez dirudi hori lortzeko bide eraginkorrena gatazkan parte garen inor baztertzeari denik. Elkarriketa eta denen ikuspuntuak entzutenak izateak emango ditu emaitzak, berriro. ■

« Geroz eta nabarmenago uzten ari dira hezkuntza agintariak zein ezagutza gutxi duten ikasgeletako bizitzaz »

TXANDAN

Castillo Suarez



Ez dakit noiz ezagutu nuen Max zehazki. Amonaren etxean

nengoen eta gaixo nengoelako oparitu zidaten bere historiaren liburua, gaur egun arte gogoan dudana: *Piztiak bizi diren lekuan*. Maite nuen Max, haren amak munstroa zela esanagatik ere. Maxek jango zuela esan zion behin amari, eta amak orduan afaldu gabe bidali zuen ohera. Bere logelan zigortuta zegoela, gau hartan oihana sortu zen bertan, eta huntzez bete ziren paretak. Bat-batean ozeanoa agertu zen, eta Max piztiak bizi ziren

Piztiak

tokiraino iritsi zen nabigatzen. Urtebete luzea eman zuen itsasorain piztiak bizi diren lekura iristeko

eta beste horrenbeste etxera bueltatzeko.

Ez dakit noiztik daukadan liburu hura, eta ezin dut gogoratu non daukadan gordeta, baina harrezkero ohearen azpian begiratzen dut maiz, eta, piztiak ikusten ez ditudanez, loak hartzen nau berriz ikusteko irrikaz. Maiz esnatzen naiz haiekin egon naizela jakinda, baina pena da inoiz ez ditudala xehetasunak gogoratzen. Ez dakit piztien erregina izatera iritsi ote nintzen ni ere. ■

Gotzon Barandiaran Arteaga

IDAZLEA

Kultura libreko piratak

Noiz uzten dio euskarazko sortzaileak bere lanaren jabe izateari? Idazle, musikari, margolari, aktore, eskulturagileak eta enparauak, zergatik ez gaude sindikatuta? Badago idaztetik bizi gura, ahalegindu eta ezin izan duenik? Internetetik musika doan jeisten dutenak piratak badira, zer gara liburuak osorik doan Interneten irakurtzen ditugunok? Eta deskatalogatuta dauden liburuak doan inprimatzen ditugunok? Eta zer dira liburugintzarako administrazio publikoetatik dirulaguntzak jaso eta Interneten ere copyrighta sutuki defenditzen dutenak? Atzo arte euskarazko kulturaren industria sendoa gorpuztea lehentasuntzat zutenek, gaur egile-eskubideen defentsa dute aldarri. Liburuak euskarri elektronikoa jarri dituzte, paperezkoak baino %70 merkeago. Adi egon ezik, prezioaren merkatea azpimarratzeaz gain, kultura errazago hedatzen laguntzen dutela pentsaraziko digute-eta. Ostera, ez digute erantzungo zergatik ez dagoen egilearen esku sortzen duenaren %90a edo zergatik dauden liburuak osorik doan eskaintzearen aurka, finean, zergatik sortzaileen lanen kontura bizitzeaz gain zergatik gailentzen zaion kulturaren ikuspegi merkantilista. Edozein irakurlek, bere etxeko bakardadean zein irakurle klubeko lagunartean irakurtzeko, etekin ekonomikorik ateratzeko inolako asmorik gabe paperean argitaratuta dagoen liburua fotokopiatu edota Interneten



INIGO AZKONA

dagoena inprimatzen badu, zigortu egin behar dugu? Idazleak horregatik kobratu egin behar du? Eta argitaletxeak? Kultura, beraz literatura, besteak beste, adierazpen askatasunerako, jakintza trukatzeko, ezagutzarako, hezkuntzarako, elkarreraginerako, iritzi edo pentsamendu zurrinak malgutzeko, ikuspegiak zabaltzeko eta komunikaziorako ezinbestekoa dela deritzoguentzat Interneta kontzeptuok gauatzeko bitarteko itzela da. Interneterako ere copyrighta defendatzen dutenek eta berauen ikuspegia legalki bermatzen duten agintari politikoez iruzurra egiten digute. Lehenek euren ez denetik etekina atera gura dutelako, bigarrenak sortzaileen lana babestu, ezagutarazi eta sustatzeko alternatibarik proposatu ere egiten ez dutelako. Halan da ze, ez argitaletxeek ez administrazio publikoek ez sindikatuek ez dizkigutenez gure lana duinduko duten eta hartzaileen eskubiak aintzat hartuko dituzten proposamenak luzatuko, sortzaileok izan beharko dugu gutxienekoa gehiagotzen hasi beharko dugunak, ez? Beste kultura batzuetako sortzaileek plazaratu dituzten proposamenak aztertzen has gaitezke, berbarako, *Carta por la Innovacion, la Creatividad y el Acceso al Conocimiento* deritzon datozenak. Gutun horretan sortzaileak hileroko soldata eta lanpostu egonkorra izan ditzan neurriak hartu behar direla proposatzen dute. Edo sortzaileok bereziak gara gainontzeko langileen aldean? ■

« Interneterako ere
copyrighta defendatzen
duten agintari politikoez
iruzurra egiten digute »

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Joan zireneko igandean eta astelehenean ikusi ditudanak. Igandean, eguraldiak etxean "sofin" egiteko agintzen zuenean, Oiartzunera egin nuen Etxeratak antolatu bertso saiora. Sarrerak patrikan, berrogei bat minutuko tartearz hurbildu ginen polikiroldegira leku egokiaren bila. Bertaratu eta Txapelketaren saioen antzera ehun bat metroko jende lerrokada zegoen jada sartzeko irrikitan. Horietarik dezente gelditu zen sartu ezinik inguru elurtuari so. Astelehenean Irungo Amaian Txirri Mirri eta Txiribiton ETBrentzat saioa grabatzekotan ziren.

Zale sufrituak

Ordu pare bat lehenago, atarian ume andana zegoen lerrokatuta txintxo-txintxo gurasoen laguntzaz. Eta ulergarria iruditu zitzaidan sarrerarik ez eta aretoak mugatzen zuela sartzeko kopurua jakin nuenean. Eta dohain. Berantiarrek etxera alegia. Lerroaren atzealdean zeuden batzuk negarrez, aurrekoek hotzik ez eta pozik. Saioa hasi baino ordubete lehenago ilarak aretoaren neurria gailentzen zuen, halere inork ez zuen alde egiten. Bertako auzotar zenbaiten harridura aurpegiak (*payasos en vasco? Sí, los de la vasca*) gogoan, etxera egin nuen, gure txikian ez garela eskasak nire buruari esanez. ■

2blia: eskarmentu berria.eus

I

Jesus birsortzen hasi zenetik
bi mila eta hamarra:
lehen Erroma zen buru, orain
Erresuma europarra.
2blia ei da e-book bihurtu
ez den liburu bakarra;
zaharrea ere zahartuta dago
lehengo testamentu zaharra,
Windowsi gisan, sumatzen zaio
eguneratu beharra.



INIGO AZKONA

IV

Interneteko pedofilian
pozik bizi da Herodes,
oraindik ere urban oro
baita “panem et circenses”
orban, aldiz, nahiago dute
Jesusen “panes et pisces”,
baina antxoia arrantzatzea
kostata baimendu denez,
langabetua biderkatzen da
ogi eta arrainen orde.

II

Elur zuritan hedatu zaigu
eurite unibertsala,
lehen elurra lur bihurtzen zen
egurrak urtu ahala,
baina egurrez egin genuen
zerrautsa eta ezpala
gasa zelako aurrerapena,
garden bezain naturala...
baina guretzat ezer gutxi da
kalefakzio zentrala.

V

Apostoluek ikasi zuten
Judas samarrak izaten,
kristo guztiak baitaki orain
kebab zein duruma jaten.
Bekariak jada ez dira
elizetara joaten,
lehengo bakea orain ez baita
mezetan ere ematen
joandakoek esku artean
griperik har ez dezaten.

III

Babelibarra dorrea ere
a zer bidegurutzea,
zer den bi hankak lurrazaletik
neurrigabe urruntzea!
Zelaako zaila pintatzen duten
bi hizkuntza mintzatzea!
Defendatzen dut bakoitzak bere
hizkuntza erabiltzea,
baina horrela ez da posible
denok elkar ulertzea.

VI

Ameriketan beltz bat heldu da
etxe zuria belztera,
emakume bat ailegatu da
BECen txapela jantztera,
Reala laster irits liteke
berriaz primeran jartzera,
termometroak tiobiboan
orain gora, orain behera...
Igual San Joanen apokalipsi
hura izango ote da?


DOINUA: “Aita izena kanta beharrak”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

J. C. RUIZ / ARGAZKI PRESS



Zinema

Bizirauteari buruzko istorio gordina fin kontatu du Xabi Moliak, berak idatzi eta zuzendutako *Huit fois debout* (Zortzi aldiz zutik) filmean. Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi sailean ikusi genuen Parisen bizi den 32 urteko baionar honen opera prima -film labur ugari egin ditu aurretik-; aste gutxi barru, Ipar Euskal Herriko zinemetan estreinatuko dute.

MIKEL GARCIA

«Frantses zinemaren garai honi urrezko aroa deituko diote»

ELSA etxetik bota dute azkenean, alokairua ez ordaintzeagatik. Lan eskas batetik bestera dabil noraezean, eta lan-elkarrizketa beldur-garriei aurre eginez ematen du eguna. Itxurak mantenduz, bizirauten ahalegintzen da Elsa, senar ohiarekin eta haren bikote berriarekin bizi den semearengatik, besterik ez bada ere. Batzuetan aurrera, atzera bestetan, baina miserian duin. Horra Moliaren estreinako film luze txukuna.

"Sept fois par terre, huit fois debout" (Zazpi aldiz lurrian, zortzitan zutik) esaera txinatarrak ematen dio izenburua pelikulari. Hori al da zure filosofia?

Egia esan, denek filosofia hori barrenean daramagula uste dut. Ezin dugun arte bizi egiten gara. Saiatu egiten gara, bizitzan borroka egiten dugu, itxaropena mantentzen

dugu... Film hau egitea bera Elsaren bizitzaren antzekoa izan da: oso zaila da jendea konbentzitzea zure proiektua babes dezan, gaztea, ezezaguna eta esperientzia gutxikoa zarenean eta etsipena eta umorea nahasten dituen istorio konplikatuak aurkezten duzunean. "Ez" asko entzun behar izan genituen, behar genuen "bai" hori aurkitu arte.

Elsa, filmeko protagonista, emakume konplexua da oso, zalantza eta beldurrez beteta. Norbaitengan oinarritu al zinen?

Nigan oinarritu nuen! Askotan jendea so egoten naiz, edo euren izaera arakutzen. Baina saiatzen naizenean izaera konplexu bat eraikitzen, beti nire pertsonalitaterik abiatzen naiz, giza kontradikzio eta egiak bilatuz. Egia esatera, nik uste besteez asko ikasi dezakegula geure izaera behatuz. Par-



tekatu egiten ditugulako beldur asko, nahiak, dudak.

Huit fois debout-eko lan-elkarrizketak sunsitzailleak dira, enpresarien boterearen eta kapitalismo bortitzenaren adierazgarri.

Gaur egungo biolentzia modu berri bat da lan-elkarrizketa, modu sofistikatuagoa. Gizateriaren gabezia erakusten du, kortesian, hitz teknikoetan, tolerantzia faltsuan bildua. Horri guztiari buruz hitz egiten dute lan-elkarrizketok.

Krisi ekonomikoa dela-eta, Elsa eta bere bizilagun Albert moduko asko aurki ditzakegu inguruan?

Bai, geroz eta gehiago. Hainbatek esan dit: “Elsa emakume txit polita da, bera bezalako neskei ezin zaie halakorik gertatu!”. Eta nik beti erantzuten dut: “Benetan uste duzu jende behartsua beti itsusia eta tontoa dela?”.

Filmean ez duzu soilik krisiaz hitz egiten, etor-kin ilegalak, etxetik botatzea, haurren kusto-dia... ere jorratu dituzu. Nola ikusten duzu gaur egungo gizartea, gaur egungo Frantzia?

Frantzia amesgaiztozko herria da gure bizitza publikoko pertsonaia garrantzitsua Nicolas Sarkozy denetik (eta 2002an hasi zen, Barne ministro izendatu zuten). Fikzioaren eta errealtatearen arteko ezberdintasunaz galde-tzen didatenean, diot beti zailtasunak aurkitzen ditudala muga garbi batzuk traza-tzeko. Eta orain are gogorragoa da, entzuten ditudan berri asko sinestezinak baitira. Frantziak geroz eta gehiago txiste txar bat dirudi. Munduko Kopara ere ezin gara joan-eta, gure burua desondratu gabe.

Pelikula ez da oraindik estreinatu, baina hainbat jaialditan izan da, hala nola Donostiako Zinemaldian. Nolako harrera izan du?

Oraingoz, oso ona. Tokioko Nazioarteko Zinema Jaialdian emakumezko aktore one-

Ezkerrean, Molia Donostiako Zinemaldian. Eskuinean, *Huit fois debout*-eko fotograma bat: Elsa protagonista eta bere bizilagun Albert, etxetik kanporatuak.

naren saria irabazi genuen eta japoniarrei filma asko gustatu zitzaion, euren eguneroko bizitzan dirudienez funtsezkoa den gai bati buruz —lana eta etxea galtzeko beldurra— hitz egiten duelako. Donostiako esperientzia izugarria izan zen, ikusleei pelikula erakusten nien lehen aldia zelako, eta nire herritik hain gertu, neguan urtero bisitatzen dudana hiri honetan —Baionako gauek herri fantasma post-apokaliptikoen itxura hartzen dutenean—. Arraroa izan zen Donostiako gertakari hain erraldoiaren zati izatea, normalean guztiz ezezagun mugitzen bainaiz bertatik.

Fourbi lehen eleberria 19 urterekin idatzi zenuen eta orain, 32rekin, lehen film luzea errodatu duzu. Zein bilakaera izan duzu tarte horretan?

Ziurrenik bi pertsona zeharo desberdin dira *Fourbi* idatzi zuena eta pelikula hau egin duena, nahiz eta ez den erraza azaltzea nola-koa izan den bidaia hori. Nire lehen liburua zerebrala zen, dibertigarria baina lehorra, interesgarria (espero dut) baina ez erraza irakurtzeko. Ulertzeraz iritsi naiz nahiago ditudan lan artistikoak itxuraz oso sinpleak direla (Gus Van Santen *Gerry* edo Cormac McCarthyren *The Road*, adibidez) eta gauzarik zailena dela ideia konplexuak oinarritzko lengoia batera eramatea. “Gutxiago gehiago da”! *Huit fois debout* lanari ekin nionean, hori nuen buruan.

*Nouvelle Vague*ren 50. urteurrenean, zinema frantziarra bogan dago; Donostiako Zinemaldiak berak atal bat eskaini dio azken edizioan. Lehen esnob hutsa nintzen zinema frantziarrarekin, eta aspergarria zela nioen —musika frantziarrarekin berdinean—. Baina bertan egini-ko filmak ikustea saihesten baino ez nintzen ari. Noski, pelikula frantziar txar asko dago... baina pelikula frantziar asko dagoelako! Urtero, urte bukaeran, hamar edo agian hamabi film on izenda ditzakezu eta hori asko da, frantziarrek joera izan ohi dugun arren pentsatzeko munduko zentroa

“Biolentzia modu berri bat da lan-elkarrizketa, sofistikatuagoa, kortesian, hitz teknikoetan, tolerantzia faltsuan bildua”

Lengoaia literarioa vs. zinematografikoa

Diziplina desberdinak ikasi dituzu eta eleberriak, poesia, antzerkia, zinema... egin duzu, arrakastarekin gainera, sari ugari irabazi baituzu zure idatziengatik. Berpizkundeko pertsona dirudizu! Denetik probatzea gustuko duzu?

Denbora askoan Berpizkundeko literatura ikasi nuen eta agian horrek eragina izan du nigan, kar, kar, kar. Ez, serio: bitarteko desberdinak erabiliz istorioak kontatzearen ideia atsegin dut. Uste dut bai zinematik eta bai literaturak bakoitzak bere indar eta aukerak dituztela, eta esperientzia batzuk hobeto transmititzen direla hitzen bidez eta beste batzuk irudiekin.

Oso desberdinak dira medio batean eta bestean kontatzen dituzun istorioak?

Eleberrietan eta pelikuletan kontatutakoak nahiko ezberdinak direla esango nuke, bai: biek zerikusia duten arren istorioak kontatzeko artearekin, idaztea eta filmatzea oso lan desberdinak dira. Idaztea prozesu bakartia eta oso geldoa da, baina askatasun handia daukazu. Eta

garrantzitsuena: zure ideiek ez dute kostu ekonomikorik! Filmatzea denboraren kontrako lasterketa da, presio handikoa, baina aldi berean talde handi baten ilusioa eta euskarri teknikoa dituena. Arrazoi horiengatik, biak maite ditut: idazle bizimodu bakartia uztartu egiten dut talde lan handi baten giza-abenturarekin; zinema-zuzendari gisa dudun erantzukizuna orekatu egiten da nire kabuz pentsatu eta idatzi dezakedan espazio intimoarekin.

Eta zein da lengoaia literarioaren eta zinematografikoaren arteko desberdintasuna?

Lengoaia literarioak gizakiaren barne mundua espresa dezake: pentsamenduak eta fantasiak hitzekin deskriba ditzakezu. Lengoaia zinematografikoak aldiz, gauzen azaleko urratu ia ikusezina harrapatzen ditu. Ezin du mundua azaldu, baina berau erakusten du, hitzek gutxitan lor dezaketen freskotasun biziarekin.

Zenbat literatura dute zure filmek eta zenbat zinema zure eleberriek?

Eszena klabeen inguruan eraikitzen noa eleberriak, gidoietan bezala. Eta filmetan, oso zehatza izaten saiatzen naiz jendearen hitz egiteko moduarekin, erabiltzen dituzten berbeekin eta hitz egiterakoan hartzen duten jarrerarekin. Baina nire filmak ez direla literaturaren barietateak, ezin direla nire eleberriak pelikuletara ongi itzuli, ideia horrekin lan egitea da niretzat benetan interesgarriena. Medio bakoitzaren berezitasuna gustatzen zait.

Non aurkitzen zara erosoan, idazten ala errodatzen?

Bi prozesuek dute euren zati eroso... eta deserosoa. Esperientzia gehiago daukat idazle gisa, baina idazterakoan, denbora eta leku pila bat daukazu zalantzarako eta auto-kritikarako. Errodatzea, nire ustez, erosoagoa da, babestuta egiten duzulako lan, zure ikuspegia euren alorrera eramateko gogor lan egiten duten pertsona ulerkor eta talentudenez inguratuta. Muntaketa gelan sartzen zarenean hasten dira benetan zailtasunak eta zalantzak.

garela, oraindik ez garelako hain herri handi eta populatua. Arnaud Desplechin, Olivier Assayas eta Christophe Honoré azpimarrazteko moduko hiru zuzendari dira. Ziur naiz, 50 urtetan, jendeak zinema frantziarren garai honi urrezko aroa deituko diola. Berau izendatzeko izen on bat eta dugun zortiaz kontzienteago izatea baino ez dugu behar!

Eta zer diozu zu bezalako zuzendari gazteen belaunaldiari buruz?

Gauza bera da: urtero bizpahiru gazte daude herrian, diruz laguntzea merezi dutenak. Nassim Amaouche *Adieu Gary* filmaren zuzendaria izan da 2009ko horietako bat. Zorte handia dugu Frantzian lan egiteaz, hemen pelikula bat egitea oso zaila den arren, oraindik ere diruz laguntzen dutelako zinema berritzailea, arriskuak hartzen dituena.

Euskal Herrian errodatu nahi omen duzu. Zein da proiektua?

"Frantziak geroz eta gehiago txiste txar bat dirudi. Munduko Kopara ere ezin gara joan-eta, geure burua desondratu gabe"

Izugarrizko gogoia dut hemen filmatzeko, badirudielako Frantzian inor ez dela ardurtzen zonalde honetaz eta zinematografikoki eskaintzeko duenaz. Beharbada mendietan kokatuko den istorio baten gidoiarekin ari naiz lanean –zehazki, Irubela Kaskoko inguruak ditut buruan–. Galtzaile bikote baten istorioa da, euren zorte txarraz askatzeko ahaleginean.

Zein harreman duzu Euskal Herriarekin?

Utzi nuenetik geroz eta estuagoa. Londonera joan nintzen bizitzera 15 urte nituela, txikiegia iruditzen zitzaidan herri batetik ihes egitea nuelako amets, ustekaberik gabeko bizimodu batetik. Orain, mundu guztitik bidaiatu dudanean, badakit leku berezia dela, etxean sentitzen naizen lekua, nire arima harrapaturik duen lurraldea. "Nire" Euskal Herria da: lanbroa, hondartza inguruko paseoak neguan, basoaren usaina euria egin ostean... ■

Liburuak

KRITIKA

Ahaztuen mendekua.

Alberto Ladron Arana.

Elkar. 220 orrialde. 15,50 euro.

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez



Holakoak Chicagon, halakoak Iruñean

NOIZBAIT irakurri al duzue, zuen herria fikzioaren ekintzen gertaleku bihurtu duen eleberririk? Horrek sortarazten duen sentsazioaren berri sekula ez nuen izan, herrikide dudana Alberto Ladron Arana idazle iruindarraren *Ahaztuen mendekua* eleberria irakurri dudana arte.

Interesgarria da aztertzea zenbateraino baldintzatzen duen espazioaren hautuak eleberrin baten egituraketa eta tratamendua, —normalean modu automatikoan egiten dugun— fikzioarekiko paktua aurrera eramateko eta beharrezkoa dugun nolabaiteko sinesgarritasun puntua eskuratzeko. Baina sinesgarri izate horrek ez du zertan errealistaren baliokide izan behar, zenbait unitate narratiboen errealitatearekiko gehiegizko identifikazioak, irakurlearengan jarrera eszeptikoa pizteko arriskua sor dezakeelako. Horixe da esperimentatu ahal izan dudana sentsazioa.

Iruña dugu polizia eleberrin honetarako kokaleku hautatua. Idazleak baliatzen dituen leku-izen eta espazio ezagunegien erreferentziak, narrazioak eskaintzen duen gertakizunen bilbean murgiltzeko arazoak sortu dizkidate; bertakoa izanik, espazioarekiko konexioa saihestu nahian, zenbaitetan behartua sentitu naiz distantziamendu kontzienteak egitera eta errealitatearen alde inpartzialki lerratzerara.

Funtsean, argumentuaren azalean, maitasun triangeluaren motiboa eta horrek eragindako problematika topatzen dugu; bi gizon eta emakume bat. Jakina denez, maitasun kontuetan hirugarren pertsona baten presentzia ez da batere atsegina suertatzen eta beraz, batek erditik kendu beharko du. Emakumea Iratin desagertzen denean misterioaren motorra martxan jarriko da. Eta desagertpenaren arrazoiak argitzeko ikerketa abian jartzen denean, hilketa ilun, diru-interes eta inplikazio politikoz beteriko gertakizun kateatuen partehartzaile bihurtuko dira pertsonaiak, bigarren istorio baten bidez. “Holakoak Chicagon gertatzen ziren, ez Nafarroan” (121. orrialdean); honen bitartez narrazioak agerian uzten ditu fikzioaren maila eta gradu desberdinak, espazioaren balio errealista markatu horren insistentziaz ohartzen garelarik. Bada Nafarroan, Errepublikara garaian gertatu zen zerbait eta fikzioaren aitzakiaz salatu nahi izan dena. Garai hartako sarraskietako biktima ahantziak dira, salaketa horren oinarrian dauden eta gogora ekarriz berpiztu nahi izan omen diren “pertsonaia” nagusiak, horregatik *Ahaztuen mendekua*. Hala ere, maitasun triangeluarekin zer gertatzen den jakiterik nahi? ■

Euskal kulturaren iazko balantzea Jakinen

Jakin aldizkariaren 2009ko azken zenbakiak urtearen balantzea egin gura du, euskal kulturaren ikuspegitik, noski. Lan horretan jarri dituzte hainbat pertsona, bakoitzak bere ikuspegitik hitz egin dezan: Alberto Barandiaran, Fito Rodriguez, Pantxo Etchegoin, Allande Sokarros, Patxi Gaztelumendi,

Andres Urrutia, Eguzki Urteaga, Xabier Mendiguren Elizegi, Iñaki Zabaleta, Xabier Mendiguren Bereziartu eta Laura Mintegi dira artikuluen egileak. Gainera, Elena Belokik eta Jean Pierre Massiassek Euskal Herriko lurralde gatazkari buruzko artikulua mamitsua ekarri dute, korapiloa askatzeko bidean Europar Batasunak eskaini ditzakeen aukerak aztertuz. ■



Jakin 175.
Batzuen artean.
Jakin.
114 orrialde.
9,95 euro.

Haragia eta erotismoa literaturan

Kupido Kalashnikov AK-47 fusil batekin: hala ageri da *Hegats* literatur aldizkariaren 44. zenbakiko kontrazalean. Gaia, azalean: *Erotismoa, haragia eta beste debeku batzuk literaturan*. Eta su horren bueltan dantzan, hainbat idazle. Hasteko, Gabriel Arestik 1970ean Jon Miranderen *Haur besoetakoaz* idatzi artikulua bat berreskuratu dute; Miranderen liburu beraz aritu da Felipe Juaristi ere; Itxaro Borkak *Haragiaren apetitu desordenatuak* izeneko artikulua sinatu du; Juan Martin Elexpuruk Saderi buruz idatzi du; Joxemari Carrerek aldiz, ahozko narratiba tradizionalen erotismoak bete duen zereginaz gogoeta egin du. *Hegats*en zenbaki monografiko hau ixteko berri, Igor

Estankonaren *Salomon eta penelopeak* artikulua. ■



Hegats 44.
Batzuen artean.
EIE.
65 orrialde.
7 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Disko gorria.
Gose.
Autoekoizpena.
Iraupena: 42'55".
17,95 euro.

Goxotasunaren eta gordintasunaren arteko dantza

ARRASATEKO hirukoteak bazterrak zeharo astindu zituen sortu zenean eta berez ez da apenas aldatu; gu gara ohitu garenak. Trikiak eta Inesen ahots goxoak batez ere protagonismoa duten kantu irekiak dira, oinarri elektronikoekin eta gitarra –tarte-ka– gogorrekin borobildu edo zikindutakoak. Badira pasarte oso goxoak, baina hitzek pozoia daramate barruan, kritika eta ironia garratz zein errealista, hain zuzen ere. *Rimmel* kanta aukeratu dute sin-

gletzat, baina gehiago ere badaude aukerak; horra hor *Error 404* adibidez. Hala ere, inongo aurreiritzirik gabe ukitu, sonortate eta tendentzia asko sartzeko gai dira: hala nola, giro balkanikoak, arabeak, folka, elektronika zoroa, bossa eta gitarra oso rockeroak, besteak beste; eta bide batez, ahal bada tradizioa apurtu. Espezie berezia dira gure paisaia honetan.

www.gose.info

Gose

«Euskal Herrira ekarri duten technoa gazteria despistatzeko da, 80ko hamarkadako heroina bezala»

Hirugarren diskoa klabea ei da, eta zuenak nabardura eta kantu borobile-nak ditu...

Egun hirugarren diskoa 80ko hamarkadako lehenaren parekoa da. Lehen, maketarekin egiten zen erro-daje guztia. Disko zaila da, ordurako taldeak asko jotzen duelako. Gu estu-diora kanta gabe sartu ginen, baina elkar ezagutzen dugu eta guztia jarraian irten zen.

Diskoetxeekin lan egin ostean, autoekoizpenaren alde egin duzue. Gus-tura? Autoekoizpena helburua edo bidea da?

Lehenik eta behin diskoetxeengana jo genuen, baina beraien arazoak bakarrik ikus-ten dituzte. Kontura-tu ginen ez duela inork taldearen alde guk baino gehiago egingo. Eta Kap-en laguntza ezinbestekoa da. Autoekoizpena bidea da. Gaur egun diskoa kaleratzea zuzenean jotzeko

promozioa da, taldeak egiten duen inbertsioa.

Aurten gorriak zerekin ezkontzen du?

Ostia txarrarekin, odolarekin eta sexuarekin. Nahi genuke jende askoren pentsaerarekin ere ezkon-tzea, baina hainbeste hipoteka, auto eta beste, inork ez du gorrian pentsatzen; bankuak dira polizia onena.

Zer ekarri zenuten Kurdistandik?

Hizkuntza gabe musika gai dela konexioa sortzeko. Eta Kurdistanek

eta Euskal Herriak asko dutela komunean, uste baino gehiago. Adi-bidez, izan ginen hiriko alkatea espe-txean izan da, eta gure herrikoa ere bai. Orain 40 urteko Euskal Herrian bezala, folklora zen errebeldeena. Itzuliko gara.

"Bakearen zakua, zakua" bakua". Askok ez dute arazo politikoa konpon-du nahi...

Bakearen zakua baino ostien zakua da Euskal Herria. Negozio bat da eta konpontzen saiatzen dena espetxera doa.

DAVID HERRANZ



Eta teleberrirako albisterik ez badago, norbait atxilotuko dute.

Technoa dagoen pun-kyena dela esan du-zue askotan...

Bai, baina atzerrian egiten dena, mezuare-kin, eta "egizu zure kontu" filosofiarekin. Hona ekarri dutena gazteria despistatzeko da, 80ko hamarkadan heroinarekin egiten zuten bezala. ■

Ezpalak

JON TORNER

Gaztesarea webgunearen agurra

GAZTESAREA webguneak (www.gaztesarea.info) agur esan du. 2003an “gazteon arteko komunikazioa bultzatu eta gure arteko sarea osatzeko asmoz” sortu zen eta hainbat gazte mugimenduren topagune izan da. Iazko uztailan polizia operazioa izan zen bere aurka, baina webgunea aurrera atera zuten zenbait gaztek. Gaur arte. Gaztesarea atariak Interneteko ARGIA Saria jaso zuen 2006an.



Gaztemaniak! programaren aldeko manifestua

“HILZORIAN dago Gaztemaniak! musika-programa. 1994. urtean sortu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak ekimen hau, ‘musika joera berriak ezagutzera emateko, bertako musika taldeak sustatzeko eta kalitatezko musika gazteei hurbiltzeko asmoz’, dio musikazale talde batek plazaratutako *Gaztemaniak! salba dezagun* manifestuak (<http://goragaztemaniak.wordpress.com>). Foru Aldundiari eta udalei eskatu diete kontzertu programa hau ez desagerrarazteko, “dituzten betebeharrak publikoak konplizteko” eta, “erakundeon hitzak erabiliz, Espainiako zein nazioarte mailako talde profesionalen proposamen berri-tzaileak” mantentzeko. Jada 400 lagunek baino gehiagok sinatu dute manifestua, musikari ugari tartean.

dFeria antzerki jaialdia bertan behera utzi dute. Norka Chiapuso antolatzaileak eta Denis Itxaso Donostiako kultura zinegotziaren hitzetan, “ikuslegoaren harrera eskasa eta krisi ekonomikoa” daude erabakiaren atzean.

Helena Taberna zinema zuzendari nafarraren *La Buena Nueva* filmak sari berri bat jaso du: Valparaisoko (Txile) Giza Eskubideen Nazioarteko IV. Zinema Jaialdiko Salvador Allende saria, Memoria Historikoa sailean.

Huhezinema film labor jaialdia antolatu du hirugarrenez Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak. Apirilaren 27tik 29ra egingo da Debagoieneko (Gipuzkoa) zenbait gunetan, ekitaldi nagusiak Eskoriatzako fakultateak jasoko dituen arren. Lanak aurkezteko epea martxoaren 12an amaituko da. Film guztiak jasotzean, lehiaketan parte hartuko dutenak aukeratu dituzte epaimahaiak. [www.huhezinema.com]


Ekon taldeak azken kontzertua eskaini zuen hilaren 16an Durangoko (Bizkaia) Plateruenan. Sixty Sexers, Erasol, Sharon Stoner, Estricalla eta Anger taldeek ere hartu zuten parte *Ekonfest* izeneko jaialdian. Hiru lan plazaratu ditu Ekonak: *Zurrunbilo kaotikoa* (Mil A Gritos, 1997), *Etnia 2000* (Mil A Gritos, 1999) eta *Salatzan dut* (Gor, 2002). 2004an taldea desegin zen, baina iaz berriro elkartu eta zenbait kontzertu eskaini dituzte gaur arte.

● Jesus Mari Lazkano artistak *Berrian* esanak, Urdaibaiko Guggenheim museorekin proiektuaz:

«[Euskal artistek] inoiz ez dugu izan gogo handirik kanpora ateratzeko. Eta, horretaz gain, mugak ere izan ditugu, noski. Ez gara hainbeste eta horrek badu eragina. Abantaila bat ere badugu. Sekulako maisuak izan ditugu: Oteiza eta Txillida, bereziki Txillida. Ziurrenik euskal artistek arreta handiagoa beharko lukete atzerrian, txinatarrek Mendebaldean bezala. Baina gure lana ere bada errekonozimendu hori lortzea. Guggenheimekin, nolabait ere, asko irabazi dugu. (...) Urdaibain beste zerbaitegiteko aukera dago.



Amaituriko obrak erakustez gain, sortze prozesuan dauden artelanak erakusteko tokia izan behar du Guggenheim berriak. (...) Funtsezkoa da Guggenheim izatea. Ezin dugu geure kabuz egin. Guggenheim markak sekulako erakarmena dauka, guk geure kabuz ekarri ezingo genituzkeen artistak bil ditzake kolpe batez. (...) Prozesu horretan guztian murgildu behar du euskal artegintzak, eta hori eginez gero, ezer ere ez du galtzeko. Kontrara, onurak baino ezin ditzake espero. Guggenheimen kontrako borrokan beharrean, euskal artegintza sare horretan sartzeko lanean inbertitu behar ditugu indarrak».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA



Bizitzeko askatasunaz

El derecho de vivir en paz. Victor Jara.
Warner Music Chile (2003).

ABENDUAREN 5ean eskaini zitzaion azken agurra gogoan, bihotzez omendu nahi izan nuen neuk ere, Victor Jara, ahots gozoko kantari txiletarra, Pinocheten biktima enblematikoa. Haren abesti bildumaren bat eskuratu asmoz, ohiko dendetara jo nuen, nire aisiko ordutegi murrizari egokitzen zaizkion zentroetara: supermerkatuetara, Elkar megadendara. Arrastorik ez. Espero nuen.

Amazon webgunea etorri zitzaidan, gero, burura. Eta baita haren gainean *L'Expansion* aldizkarian irakurritako kritikak ere. Langileak presiopean aritzera behartuta, editoreak lepotik estututa, baldintza guztiak mugaraino zorrozuta lortu omen du Jeff Bezos-ek –sortzaileak–, hamabost urte eskasetan handietan handiena izatea. Eta ni bertara, langileen eskubideak, iraultza sozialista eta beste hainbat balore hain present izan zituenari bere ekarria eskertze alde.

Aukera ederra zabaldu zidan Amazon.co.uk-k: *Antología Musical, La Población, Serie de Oro: Grandes éxitos, Canto por travesura...* Eta eman gabeko konfidantza ere hartu zidan, bide-nabar esanda, *El derecho de vivir en paz* hautatu nuenean. “Produktu hau erosten dutenek –zioen diskoa saskiratzerakoan atera zitzaidan mezuak– besteak beste, Violeta Parraren *Antología*, Quilapayún-en *El Pueblo Unido jamás será vencido* ere erosten dituzte”... Tira, bai, hurrengoan.

Agindu bezala zintzo, bizpahiru egunen bueltan heldu zitzaidan etxera nire buruari eginiko oparia. Eta latza da, oraino ez dut diskoa lasai entzuteko gibelik izan. Nola neur-tu diskoaren musikaltasuna, letren indarra, doinu eta hitzen uztardura, 1973ko irailaren 13ko hartan, Chile Estadiora bil-dutako presoen testigantzak, Jararen kontrako basakeria azaltzen duten lekukotzak, egin berri zaion autopsiaren emaitza, torturazailer hiltzaileei mozorroa kentzeko ezinta-suna akoplatzen baldin bazaizkit.

Deserosoa baina ezinbestekoa da Jararen lana. Entzun nahi ez dena baina eduki beharrekoa. Etengabe gaurkotzen den miseria baten ispilu. ■

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

10

www.nafarroakotxapelketa.com



Azken-laurdenak:

Urtarrilaren 23an

AIZAROTZen

Basaburuko Kultur Etxean

17:30ean

Julen Zelaieta, Bittor Elizagoien,
Aimar Karrika, Iker Gorosterrazu,
Oier Lakuntza, Arkaitz Goikoetxea.

Urtarrilaren 24an

SUNBILLAN

Ulibeltza Elkarte

17:30ean

Xabier Legarreta, Aritz Saragueta,
Iñaki Aleman, Iñigo Ibarra,
Ekaitz Astiz, Egoitz Gorosterrazu.

Nafarroako
Bertsozale
Elkartea



Laguntzailea:

argia




argia
argia.com/multimedia

Bertsio digitaletik harago Argi berri bat sarean




BIDEOAK:

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



DIAPORAMAK:

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




EKITALDIAK:

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



ARGAZKI-GALERIAK:

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




FILM-LABURRAK:

Euskarazko film-laburren hautaketa.

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Zerga (alderantziz). Aitalehena.
2. **Argazkian**. Aluminioaren sinbolo kimikoa.
3. Egokia. Larruazaleko gorriune bizi.
4. Saltzeko dagoena. Gehitzeko partikula.
5. Idi, hitz-elkarketan. Madarikazio, birao. Agataren barietate preziatu.
6. Gorantz zuzen. Zekenak, zikoitzak.
7. Ezinean. Edonon, nongura.
8. Ongi. Azaleko baba.

Goitik behera:

1. Hitz bat eta kategoria gramatikal bereko beste bat, aurrekoaren zehaztailea dena, elkartzuz eratzen den joskera.
2. Ospetsu, entzutetsu.
3. Zati, puska.
4. Dut (alderantziz).
5. Kontsonante bikoitza. Errukari, gaixo.
6. Ozartasunez.
7. Araknido mota. Naizen hau.
8. Santuren apokopea. Salbu.
9. Atsegin, gogoko.
10. Barrutik.
11. Landare mota. Lehergai ezaguna.
12. ... gaintetik, ororen gainean.
13. Haur txiki.
14. Argi-izpi.
15. Zolda.

Sudokuak

Erraza

9				5	1		3
			1				
2				9	4		
			8		7	3	
	2	4			5	8	
8	7		4				
		6	4				1
			5				
8	3	1					9

Zaila

			4	7	5		2	3
	4							
						4	1	
	6	2	7		8		4	
	5						8	
	8		6		2	9	3	
	2	3						
							5	
8	9		3	4	6			

Soluzioak

9	8	5	3	7	2	4	6	1
4	1	2	6	5	3	7	8	
2	7	6	4	2	8	5	1	3
6	3	7	1	9	5	8	4	2
1	6	9	5	8	2	7	3	4
3	2	4	7	9	1	5	8	6
5	4	8	9	3	6	1	7	2
7	6	5	2	1	4	8	9	3
8	4	6	3	1	2	5	7	9

Erraza

Zaila

6	7	4	9	2	1	3	5	8
1	2	3	5	8	7	6	9	4
4	8	1	6	5	2	9	3	7
7	5	9	1	3	4	2	8	6
3	6	2	7	9	8	5	4	1
2	3	7	8	6	9	4	1	5
5	4	8	2	1	3	7	6	9
9	1	6	4	7	5	8	2	3
8	9	5	3	4	6	1	7	2

Erraza

Ezker-eskuin: 1. Asat. Asaba. 2. Potoka. 3. Ona. Zambrano. 4. Salgai. Eze. 5. It. 6. Arregu. Onize. 7. Zuzit. Zuzimnak. 8. Eznik. 9. Barruz. 10. Aloe. TNT. 11. Oroz. 12. Niri. 13. Inat. 14. Zahi. 15. Ekin.

Goitik behera: 1. Apozizio. 2. Sonatu. 3. Aial. Ted. 4. It. Garzo. 5. Ozark. 6. Alkan. Ni. 7. San. Ezik. 8. Begika. 9. Barruz. 10. Aloe. TNT. 11. Oroz.

Kike Amonarizen umorea

Lore saltzailea

Egun batez, lore saltzailea ile-apaindegira joan zen ilea mozttera. Ordaintzera zihoanean, ordea, halaxe esan zion ile-apaintzaileak:

– Gaur ezin dizut dirurik onartu. Gaurko eguna komunitateari eskaintzen baitiot.

Biharamunean, eskertze-oharra eta dozena bat arrosa aurkitu zituen atean. Hurrengo astean berriz, okina joan zitzaion ilea mozttera. Eta ordaintzera zihoanean ile-apaintzaileak ezetz, egun hori komunitateari eskain-

tzen ziola eta ez ziola dirurik onartuko. Hurrengo goizean, dozena bat pastelez beteriko bandeja zuen atean zain, esker-tze gutun batekin batera.

Hurrengo astean berriz, diputatu bat azaldu zitzaion ile-apaindegian. Lanak amaitutakoan, hari ere gauza bera esan zion:


– Gaurkoa komunitateari eskaintzen diodan eguna da eta ez dizut dirurik onartuko.

Biharamunean, ile-apaintzailea ile-apaindegira hurbildu zenean, dozena bat diputatu aurkitu zuen atean, ilea doan mozteko zain.

Ihesi

ITZIAR MADINA

Argazkiak: Allande Sokarros



Euskal Herria ezagutuz:

Donibane Garazi (Nafarroa Beherea)

Edertasun eta grazi

Baionako komertsant gaskoniarrek populutu zuten, aspaldi. Haren tontorraren puntaren puntan, Nafarroako Koroak jauregia eraiki zuen. Baita nagusia izendatu, zeregina baitzuen zergak kobratu. Nekazal inguruko ekonomiari loturik, behialako joritasuna galduz joan zen.

Gaur, masako turismoak biziarazten du Donibane Garazi. Eta Konpostelako bideak.



“LEHEN, ASTELEHENA huts egiteko-ak ez ginelarikan, dotzena bat lagun taldea muntatzen ginen aste guziet Ostatu Amerikanoan. Orduan bai, irriak!”. Jean Pierrek 83 urte ditu. Bere artzain biziko aspaldiko usaia gogoan, gaur ere Donibane Garaziko merkatura etorri da. “Dial Arrunt ttipitu da orain, lehengoaren aldean!”. Zerbait izan behar zen, baiki. Ezen, axuririk ez baita falta plaza estalian. Marraka eta marraka, amari deika, gizagaixoak. Eta jende mugimendua bada, ez idurian. Baina “gaur artzain-laborari gutiago da, merkatuan”, azpimarratzen du Pettan artzainak. “Ainitzek etxetik beretik saltzen dituzte bildotsak”. Tratulantarekin prezioa aitzinetik adostu, eta Donibanera jiteko beharrik ez dute. Merkatu estalian, lane-ko jantzi urdinak ala berde ilunak dira ikusgai, arkume saldoak pitzatzen, kamioietara kargatzen, bero-kiak estalirik. Baina egiari zor, kabala-tratanteen blusa beltz luzerik ez da ageri. Alta bada, erosle jakitunaren behakorik ez da falta. Gaztelako matrikuladun kamioi erraldoiaren tripa bildotsez betetzen doala egiaztatzen eta laborariarekin mintzatzen ari den gizonarena, kasurako.

XIX. mendea kilikatu eta XX.a ederki borobildu zuen Donibane Garaziko artzaintzari loturiko ekonomiaren erakuslerik bada, hori *Cherbacho* etxea da. Espainiako karrikan da, XXI. mendeak “Euskal Xerria” luxuzko ekoizpen bilakatu duen Oteizaren saltokiaren ia parean. Hots, Nafarroako Estatuaren Etxea izandakoaren bisean-bisean. Garazin, “Xerbaxo” izengoitiz eza-gutzen da Inchauspé familia, BAMI, Banque Michel Inchauspéren sortzailea. Xerbaxoenean garai batez, artilea saltzen zuten artzainek. Edo hobeki erranik, trukean uzten. Frantses Gobernuak XIX. mendearen bukaeran tesaurizazioari buruzko legea bozkarazi zuelarik berriz, ondasun metaketa dirutza bilakatzeko parada eman zuen. Honela, Baxenabarreko bankero familia saga ospetsu bati hasiera eman zitzaion.

“Karrika herria, zubi herria”

Donibane Garaziz Julio Caro Barojak utzi zuen idatzirik: “Karri-

ka herria da, funtsean, nola zubi herria”. Donibane Garazi Ezteren-zubin sorturiko Errobik bitan zatiturik dago, hego-ekialdetik ipar-mendebaldera. XX. mende hastapenera arte, Donibanera heldu eta, ibaiaren zeharkatzea zubiz egiten bazen, Jondoni Joane zubitik izanen zen, ordaindurik. Donibane-ko Jauregiko alkaidea izan zen legar horren lehen biltzailea. Donazaharrerako karrikako zubi nagusia aldiz, duela zenbait hamarka urte baizik ez zen egin, gaurko trafikoa-ri egokitzeko. Aitzin, ur bazter gozoa zen, udako ur apalez oinez zeharkatzeko erraza, bokata egiteko xuritzzaileen hautuzko gunea. Handik izan ere, Espainiako karrikako joan-jinak oro begimen zitzaketelako.

Eta ez ziren gutxi, haiek. Garaziko inguruko laborari guztiek haien ekoizpenak ekartzen zituzten, Konpostelako beilariek Orreagarako pasabidea zakusaten eta komertsanteek, Espainiako atea zabalik. Izan ere, 1274az geroz Nafar Erreinu-ko Hiri Onen Batasuneko kidea izanik, Donibane Garazik ez baitzuen zerga ordaintzerik nafar eremu osoan. Gaur ospetsu zaizkigun bidaiariak iragan ziren Espainiako karrikako zubitik. Hala nola Aymeric Picaut XII.lean eta Edrisi arabiar geografoa XIII.lean.

Errobi erreka bazterreko itzuli gozoa –udan freskagarri, neguan pizgarri– egin nahi badugu, Eiheraberriko zubira heldzea baino errazagorik ez da. Hartuko dugu

Behean, Zitadelako karrikako etxe zaharrak. Aurreko orrialdean, irudi klasikoa: Jondoni Joane zubia eta elizako ezkira, Floquet plazarako zubitik ikusita.





Jondoni Joane zubia eta izen bereko eliza, Ipar Euskal Herriko eraikin gotikorik ikusgarriena Baionako katedralaren ondotik.

horretarako Jondoni Joane eliza-ren saihetsetik doan karrika eta ibaiaren noranzkoaren kontra abiatuko. Laster Donibane Garaziko zitadelako mendixkaren latza eztituko da, etxe batzuk ikusiko ditugu. Handik, oihanpe xumea. Eta bizkarra konkor, Erdi Aroko Eiheraberriko zubia. Honek berriz karrikaratuko gaitu, baldin eta zeharkaturik eta uraren behe-
ranzkoan aldi honetan, zidorretik jarraitzen badiogu ibilbideari.

Erdi Aroa bizirik

Edrisi geografoak XIII. mendean ikusi zuen Donibane Garazi eta bistak ez bide zion itxura txarrik utzi. “Djebel-el Bortat”, mendi tontor-
rerekiko herria deskribatu zuen

bere kroniketan. “Haraindiko lurretan” komertzioaren gainera zerga ezartzeko asmoarekin, nafar koroak Donibane Garaziko tontorra estrategikotzat jo zuen. XII. mendea zen. Zehaztasun idatzirik ez bada ere, gaurko jauregia ala zitadela VIII. mendekoak izan daitezkeen arrastoetan oinarriturik legokeela aipatzen da. Jauregiko lehen alkai-
dea Martin de Chipia izan zen. Ordu-
tik at dira, idazkiak xeheki egi-
nik: zergak, administrazioa eta baita justizia buruzagi haren gain izanik.

1125ean Baionako Forua bere-
ganatu zuen Donibane Garazik eta Nafarroako Erregeek onetsi zuten. Hala nola Teobaldo I.ak 1234an eta haren ondoren Evreux-ko Filipek eta Karlos II.ak. Honela, Koroak

herritar askatasuna eta merkatua antolatze-
ko eskubidea ematen zion, Iparraldeko muga eta “erre-
nuko giltza” zaintzen zuen jende-
tzari. Hots, Donibane Garazi kolo-
noen herria izan zen. Are gehiago, Nafarroako Gorteetan jarlekua zuen kolonoen herria. 1512an Gaz-
telak Nafarroaren konkista abia-
tzearekin, Donibane Garazik agra-
mondarren eta beaumontarren arteko liskarren erdian gertatu zen, ez erosoki, artean.

Donibane Garaziko Jondoni Joane eliza Ipar Euskal Herriko eraikin gotikorik ikusgarriena da Baionako katedralaren ondotik. Ardatz nagusia Errobi ibaiari para-
leloan eta eliz burua Donibane Garaziko jauregia den kaskoari begira doazkio. Erdi Aroan, “txa-
pitela” –eguneroko merkatua– zuen auzoan. Orduan harresitua eta defentsarako pentsatua zen. Bestalde, herriaren beste puntan, gaurko geltokirako bidean, ikusgai daude Ugangeko Santa Eulalia eliza zaharraren aztarnak. Preses-
kiago, “Toki Eder”, XVIII. men-
dean berri-
tu zahar-etxean. Beha-
koaren luzatzeak merezi du Cr dit Agricole banketxearen sai-
hetsetik, harrizko arku erromaniko ikus-
garria erakusten baitu, denborari oldarkor, harro. Borobil ez-
ti horren lepo gainetik bederatzi mendek begiratzen gaituzte.

“Xuriak” eta “gorriak”

Charles Floquet abokata, errepu-
blikarra eta Frantses Kontseiluko lehendakari izandakoa Donibane Garazikoa zen. Haren omenezko oroitarria herriko parkearen itzu-
linguruan dago. Floquet *gorriak* “Biba Polonia!” oihukatu omen zion, Pariseko 1867ko Erakusketa Unibertsalera bisitan zela, Nikolai II.a Errusiako Tsarrari. Hura Frantziarekin harreman diploma-
tikoak haustekotan egon omen zen. Charles Floquet ezker mutu-
rreko diputatua, Pariseko Komu-
natik bizirik baina kondenaturik atera ziren gizon eta emazteen defendatzaile izan zen. 1888an, du-
eluan borrokatu ziren doniban-
darra eta 20.000 hildako eragin zituen Komunako errepresioan parte hartu zuen Boulanger Jene-



Goian, Donibane Garazi eta Uharte Garazi gotorgune edo zitadelatik ikusita. Eskuinean, alde zaharrerako sarrera bat, harresian.

rala. Hirurogei urtetan, adinaren erdia zuen militarra zauritzea lortu zuen. Boulanger tradizionalista eta populista estatu kolpea ematen saiatu zen III. Errepublikaren kontra. Huts eginik, Belgikara erbesteratu behar izan zuen. Eta Belgikan, amorantearen hilobian bere buruaz beste egin zuen.

Baina Donibane Garazin, Baxenabarre gehienean nola, “xuriak” ziren nagusi. Hala, 1937ko ekainaren 24an Hego Euskal Herriko 500 haur errefuxiatu Donibane Garaziko zitadelara aterpetzera jin zirelarik, harrera hotzila baino ez zuten izan. Hainbestearino non, agorrileko Andre Dena Maria ospatzen diren herriko bestak ezetzatu baitziren urte hartan. Haur “gorriek” deabrua ekarri bide zuten Donibane Garazira... Eta ez zuen Jean Ybarnegaray diputatuak haien aldea hartzekoa. 1939an, Vichy-ko gobernu kolaboratzailearen segitzaile lerrokaturko zen. Pétain Lehendakariak familiaren ministro izendaturiko zuen. Eta noizbait joanen zen “Hitlerri gibelatzen ikuztera”.

Konpostelako bidea

Gaurko Donibane Garazi perfusiopean bizi da: udako masako turismoarenaren pean. Jauregia, Zitadelako karrika, apezpikuen presondegia, harresi zaharrak ala

Espainiako karrika lasaitasunean gozatu nahi dituenak ahantz ditza-la uztail eta abuztuko hilabeteak. Oroz gainera uztailaren 14a, abuztuaren 15a edota hondartzarako ona ez den eguraldiko egunak.

Bisitarietan, urtero, hamar milaka Konpostelako beilari iragaten da Donibane Garazitik. 2009an marka guztiak hautsi ziren eta 35.000ra heldu zen. Haien inguruan egiazko turismo-industria garatu da, bere ostatu, aterpe berezi, liburu eta “souvenir” eskaintzarekin, baita taxi zerbitzu espresekin ere. Bizkar-zakua Donibane Garazin utz eta, Orreagan berreskura daiteke. Horrela, Bentarteako eta Lepederreko gaina zutak arinkiago gauditurik. Hala ere, ez da hori arras gauza erraza. Uda ala negu, Garazikoak bortu gorak izanez —Orreagako lepoa 1.410 metrotan dago— aroa gaiztotzen delarik ez baitira gozoak batere. 2008an, lau jendeke utzi zuten azken hatsa Konpostelarako bidean, lainoak tronpatua ala hotzak kokildua. Hori dela-eta, iazko abenduan lehentze, Konpostelako Lagunen Elkartek

**Gaurko Donibane Garazi
perfusiopean bizi da:
udako masako
turismoaren pean**



informazio bulegoak irekirik mantendu zituen.

Donibane Garazira Izuratik heldu da beilarien gehiengo. Izurran izan ere, Konpostelarako Frantziako hiru bideen (Tours, Vezelay eta Puy-koak) bat egitea baitago. Aldiz, beste batzuk Lapurdiko kostaldea utzirik datoz. Konpostelako bidea *Camino francés* delakotik abiatzeko gogoarekin, maskuilua bizkar-zakuan eta makila eskuan, Baionako trenetan datoz. Mendea pasa duen burdinbideak Errobi ibaiaren zoko-moko ikusgarri andana erakutsi die, Garaziko mendi kaskoen garraztasun eta laztanaren aitzingustua. Herriko karrika gorrixketan ibili eta, bortu gainetan oroituko dira: han dago Donibane Garazi, dena edertasun eta grazi. ■

Osasuna

JABIER AGIRRE

Gosaririk onena

ESNEKI BAT, zerealak eta fruta nahastuz egunari aurre egiteko behar duzun energia guztia lortzeko moduko errezeta prestatu duzu. Izan ere, esnekiak kaltzio-iturri aberatsa dira; frutak, berriz, bitaminak eta zuntza ematen dizkigu, eta zerealak, azkenik, karbohidratoak eta proteinak. Koktel ezin hobea eta ezin goxoagoa goizean goiz hartzen duzun gosarirako, osasungarria bezain nutritiboa.

Zeinek ez du honako esaldiren bat erabili, ez gosaltzea justifikatu nahian: “Ez daukat astirik”, edo “goizetan ez dut goserik izaten”? Baina aitzakia horiek zenbait kasutan –gutxitan, seguru asko– egia izan arren ere, ez dago otordu hori bertan behera uzteko arrazoi pisuzkorik. Bestetik, ez da beharrezkoa gosari betea, osorik, etxetik irten aurretik egitea, zati bat etxean eta gainerakoa goiz-erdian hartu baitezakezu. Dena den, kontuz hestebe-te edo opil industrialekin, neurrian kontsumitzea komeni da, gantz saturatu asko izaten dituzte-eta normalean.

Ez gosaltzeak gizendu egiten du. Askorentzat sinesgaitza izango bada ere, hori egia da. Dietista guztiek dioten bezala, flakatzeko garrantzi handikoa da goizean ondo jatea, zergatik?

Kaloriak erretzen dira. Otordu bat egiten den bakoitzean metabolismoa martxan jartzen da: gorputzak energia erretzen du digestioa egin ahal izateko.



WWW.EDUCA.MADRID.ORG

Apetitua gutxitzen du. Gosari on batek glukosa-mailak neurri egokian mantentzen ditu. Zortzi ordu lotan, jan gabe pasatu eta gero, gluzemiak behera egiten du, horrek energia “lapurtu” eta eguerdian gose ikaragarria emango dizu. Hori guztia saihesteko, komeni da jaikitzerakoan glukosa-mailari eustea, gosari egokiarekin.

Antsietatea baretzen du. AEBetako Denverreko Unibertsitatean Giza Nutrizioko Sailean egin-dako ikerketa batek adierazten duenez, behar bezala gosaltzen denean, egunean zehar sentitzen den apetitua eta elikagai faltak sortzen duen antsietatea gutxitu egiten dira.

Zeure osasuna zainduko duzu. Batez ere fruta eta zerealak, hobe integralak, hartzen badituzu. Elikagai horiei esker %30 murrizten dira gaitz koronarioak –bihotzean– eta koloneko minbizia.

Azkurak garunean daukan “txokoa” aurkitu dute

Esan gabe doa non egin duten aurkikuntza: AEBetan. Washingtongo Unibertsitatean, zehazki. Jakina da azkura eta mina ondo bereizten dakigula, baina orain arte zientzialariek ez zekiten zelan. Azkenik ordea, detektatu dituzte azkura sentiarazten duten neuronak. <http://ttiki.com/9169> (Euskaraz)

Zenbat eta goizago erre, arrisku handiagoa

Eguneko lehenengo zigarroa ohetik jaiki eta berehala erretzen dutenek aukera handiagoa daukate minbizia garatzeko, egin berri den ikerketa baten arabera. Arrisku faktore horrek ez dauka zerikusirik egunean zehar pipatzen den zigarro kopuru osoarekin. <http://ttiki.com/9170> (Gaztelaniaz)

Hegazti gripeak, behintzat, nekez akabatuko gaitu

Garai batean alarma handia sortu zuen hegazti gripeak ez zuen, azkenean, batzuek iragarritako sarraskia eragin. Gogoratu, A gripearren kontrako ezaugarriak ditu honek: oso hilgarria da, baina zaila da gizakiongan transmititzea. Zientzialari talde batek aurkitu du birusak gu kutsatzeko daukan gaitasun eskasaren arrazoia, eta eman dituzten azalpenak ikusita badirudi lasai egoteko moduan gaudela, alde horretatik baino ez bada ere. <http://ttiki.com/9172> (Frantsesez)

Unai Brea

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Zerutik ez da ogirik

KRISTAUETAN gorrotagarrien eskuetan dagoen Kristoren arantza-koroaren materiala hesilaharra, *Lycium europaeum*, omen. Gaztelaraz arto izenez ezaguna. Arto, grekozko legamiarik gabeko ogia, gaur egun ia eliza ortodoxoaren ospakizunetan ez beste erabiltzen ez dena. Elizatik elizara landare laharren sasietan barrena. Horixe baitira elizak, sasitzak! Beren azpijokoen trapukeriatarako ogiak erabiliagatik, sasitzak.

Geurean, artoa deituriko artirinezko ogi trinko harrotu gabea erlijio bateko mito tankerako bihurtua dugu. Ogi gorria ere esaten zaio. Azoka, peri eta halako fariseotegietan soilik topa daiteke ia, edo beste inon izatekotan mendi aldeko laberen batean. Eta mito guztien tankeran, ziztrin. Hasten al da baten bat gure ogien, hau da, gure historiako artoen genealogiaren atzetik. Bestela, lehenaz gain, berriz ere ez dute elizek gurean zail izango, kanpoa euritan bezala, irabazian egotea. Ezjakina-

ri, hizkuntzan urriari, historian elkorriari... oilo gaixoari denak mokoka.

Garia egin ezin zuenaren ogia edo artoa zen artirinezkoa. Ogia eta taloa eta morokila edo artotahia. Makina bat gose putzu berdinduko zituen artirinak. XVII. mendera arte ez zuen, baina, artotak (*Zea mays*) Ameriketatik gure oramahaletarako bidea egin. Lehenagoko artoak, hau da oinarritzko ogiak, ordea, zein irinez egiten ote ziren? Artatsikia (*Panicum miliaceum*) nola landu bildu jaso eho oratu orantzatu eta erretzen zen? Eta beste koloretako ogiak? Ogi beltzarenak egin zuela zirudienean horra hor non berpiztu eta harro azaltzen den, zahi eta errexiloak agerian, gure otorduetan, eta ogi xuria amesten gosete beltzak bizi zituztenak harri. Eta lurrin-dendak diruditen okindegiaren zekale-ogia deitzen duten garai bateko otasa malapartatua? Eta ezkur-irinez egiten ziren ogiak?

Adi elizari, baina gure ezjakinari hel diezaigun.



JAKOBA ERREKONDO

Zuritu

Zuria omen gozoen. Mikatz antzeko barazkiak zuritzeko joera zaharra da. Kardua, letxua, eskarola, txikoria, endibia... zenbat eta zuriago eta finago. Argiak berdetzen du hostoa eta zuritzeko hura kendu behar. Batzuk estalita ikusiko dituzu, kardua eta eskarola, adibidez. Era zaharrera, hostoak bildu eta lotuta daude, ordea, baratze honetako txikoria hauek, *Cichorium intybus*. Aste pare batean ederki zurituko zaie burua. Hauxe da, niretzat, entsaladagai onenetakoa.

20

Hogei urterako plana abiatu du Britainia Handiko Gobernuak. Azken urteetan gainbehera den bertako nekazaritza suspertu eta sustatu nahi da 2030. urtera bitartean. Horretarako jendeari bakoitzak bere baratze eta soroa izateko erraztasunak emateak garrantzi handia izango du. Baita janari saltzaileak kalitatezko bertako produktuak eskaintzera bultzatzeak ere. Oilo-arrautza adibide, kaioletatik at, aske bizi diren hegaztiak sortua saltzen zenaren %16 zen duela hamar urte, egun %40 da. Horrela sortutakoak edo ekologikoak diren arrautzak soilik saltzen dituzten supermerkatu kateak badituzte. Tokitan daude hemen gobernu, supermerkatu... eta tokitan gaude gu!



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Mundua konkistatu zuen Bohemiako dirua



WWW.SEGUNDOASEGUNDO.COM

Ezkerrean, AEBetako egungo dolarrak. Azpian, XVII. mendean Mexikon sortutako dalerraren sinboloa.



MEXIKO, 1535. Karlos I.a Espainiakoak —edo Karlos V.a Alemaniakoak— agindu bat bidali zuen metropolitik kolonia berrira: egun Mexikok hartzen duen lurraldeko zilar meatzeetan Europan erabiltzen ziren *thaler* izeneko txanponak egiten hasi behar zuten. Thaler izena Joachimthaler —zilarretan aberatsa zen Bohemia iparraldeko ibarra— toponimoaren laburdura zen.

Mexikoko espainiarrek agindua bete eta *dalerrak* egiten hasi ziren, *th* soinua ezezaguna baitzen beraientzat. Txanponarentzat sinbolo bat ere asmatu zuten: kontinente zahar eta berriko kostaldeek osatzen zuten irudiari Herkulesen bi zutabeak erantsi zizkieten; hau da, bi marra bertikalez gurutzatutako S-a ipini zuten txanponetan. Pentzatu ere ez zuten egingo mende batzuk geroago irudi hori aberastasunaren ikur bilakatuko zenik.

Izan ere, iparraldeko kolonia ingelesetan ez zen moneta berria erabiltzen. Ez zuten zilar meatzerik eta iristen ziren txanpon guztiak birziklatzen zituzten. Trukerako tabako hostoak, larrua, gatza, maskorrak eta, ingeles

kontrako iraultza hastear zela, diru-papera erabiltzen zituzten.

1751n Benjamin Franklinek Amerikako kolonietan moneta sortzeko eskaera egin zuen Ingalaterrako Parlamentuan. Jasotako ezezko biribila medio, inprenta bat erosi eta kontinental izeneko diru-papera inprimatzen hasi zen.

Kontinentala Amerikako Iraultza finantzatzeko baliabide ezinbestekoa izan zen, baina independentzia lortu eta gero, tresna iraultzaile bikaina arazo ekonomiko bihurtu zen. Diru-papera neurrigabe inprimatzen zenez, kontinentalaren balioa egunetik egunera depreziatzen zen. Moneta berria behar zuten.

Baina berria sortu ordez, ordurako kontinente zaharrean baztertuta zegoen daler mexikarra propiotzat onartu zuten 1792ko apirilaren 4an. Berehala *dollar* esan zioten txanponari, fonetika ingelesak eraginda. Horrenbestez, Joachimthalerra dolar bihurtu zen, zilarra paper, eta Amerikako ingeles koloniak munduaz jabetu ziren, Herkulesen zutabeek zeharkatutako S-a banderatzat hartuta.

Arrastoak

Ongi etorriak Youtube museora

YOUTUBE, bideoak biltzen dituen web ezaguna, munduko gero eta museo eta elkarte gehiagok erabiltzen dute beren bildumak eta jarduerak zabaltzeko.

Erakunde horien artean Mexikoko Antropologia eta Historia Museoa nabarmentzen da. Izan ere, museo horrek antolatu dituen erakusketei, industria lanei eta herrialde bereko beste museo batzuei buruzko 180 bideo ipini berri ditu Youtuben. Horien erreproduzio kopuruak medio, ekimena arrakastatsua izan dela diote arduradunek.

Besteak beste, New York-eko Metropolitan museoa, Parisko Louvrek edo Kataluniako Arkeologia Museoa ere bideoak jarri dituzte webgune ospetsuan.

WWW.WIKIMEDIA.ORG



Pedromari Olaeta

«Ez dago ezker subiranistaren espazioa bete dezakeen alderdirik»

Getxo, 1956. Zientzia Fisikoetan eta Enpresa Zientzietan ikasia. EAko Zuzendaritza Nazionaleko kidea. Ezker Soberanista Eraikitzen ekimenaren bultzatzaile nagusietako bat da. Euskal Herriak subiranotasun bidean aurreratzeko behar duen eredu berriaz jardun dugu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Zertan dago ezker politikoa gaur egun?

Garai aldaketa ematen denean, lehengo garaiko paradigmek ez dute garai berrirako balio. 1990etik ezkerrek ez du identitate berririk eraiki Europan. Ez da hemengo arazoa soilik, gizarte garatuen arazoa da. Alegia, ez dago proletariorik, baina kapitalismoaren dialektika bizirik dago. Laburrean esanda: egungo ezkerrek ez daki jendea mobilizatzen iraganezko paradigmatik erabiltzen dituelako.

Industrializazioaren osteko garaian gaude...

...eta garai berri baten hasieran: informazioaren garaia, informazioaren kontrolean oinarritua. 1940ra arte aberatsa zen lurra zeukana. 1940etik 1980ra lantegiak zeuzkana. 1990etik informazioa kontrolatzen duena da aberatsa. Informazioa duenak inbertsio funtsetan inbertitzen du dirua, funts hauek munduko alde batetik bestera doaz eta kapital espekulatiboa sortzen du. Hori da oraingo krisiaren eragileetako bat.

Egoera berriak zer iradokitzen digu Euskal Herriaren eraikuntzari begira?





“Praxi politikoaren ondorioz errezeleak daude alderdi subiranisten artean. Hori aldatzeko ezker subiranista mugimendua eraiki behar da. Zentzu horretan, EA alderdi bezala osatutako iritzi korrontea izango da mugimenduan”.

Iragan mendean gizartean eragiteko ereduak berriro behar direla, argudio berriak behar ditugula.

Zer da zentzu horretan Ezker Soberanista Eraikitzen ekimena?

Ezker berriaren paradigmak eraikitzeko ekimena. Azken 30 urteetan ezker subiranistaren indarrak elkarri harrika aritu dira. Areago, paradigma berriak landu beharrean ezkerrek kanpoko ereduak kopiatu zituen. Alderdi bat sortzeko Marx, Mao, Lenin, Stalin edo euren aldaerak kopiatu eta horien aldarria egin zen. Hartara, ezker subiranistaren produkzio intelektuala ezdeusa da. Salbuespenen bat kenduta noski. Emilio Lopez Adan-en *El Nacionalismo Vasco y Clases Sociales* gidaliburutzat hartu behar da. Badira bizpahiru gehiago, beste maila batekoak. Alegia, garaia aldatu da, ekoizpen moduak eta gizartea instituzionalizatzeko ereduak aldatu dira, baina harreman sozialak lantzeko ereduak ez.

Ezker Soberanista Eraikitzen programa bat dela diozue, ez plataforma bat.

Ezker subiranistaren eredu eraginkorra eraikitzeko behar den talentua ez dagoela alderdi edo kolektibo bakar batean diogu. Estatu komunista ohien eredu sozialista ez zaigu balio eta kapitalismo inperialista berriaren aurrean alternatiba bat eraiki behar dugu. Baina hori ezin da alderdi bakar baten eskutik egin. Egun langi-

lea ez da bakarka ari enpresetan, Network ereduaren barruan ari da. Talentua bildu eta harremanak berrizatzeko kezka eta nahia dituzten pertsonak behar dira, eredu berriak sortzeko arduratuak. Pertsonok enpresa-erakunde ezberdinetan ari gara eta eredu berriak eraikitzeko irizpide transbertsalak landu behar ditugu. Gauza bera behar da euskal politika berritzeko. Horregatik gurea programa da eta ez hauteskunderetan aurkezteko plataforma.

“Aktibismoa instituzionalizatu beharrean instituzioak aktibizatu behar ditugu”

Euskaria eta Maltzaga. Nazioeztabaida Gunea. Ezker Soberanista Eraikitzen... Herritarrek jabetzen al dira ekimen sorta honetaz guztiaz?

Bizitza politikoan eragiteko hainbat maila daude. Bat: alderdi batean militatzea eta bere pentsamenduaren ildoan aritzea. Baina bitarteko transbertsalak ere beharrezkoak dira. Maltzaga Euskariatik sortu zen, alderdi abertzaleek betetzen duten espazio elektoralak ezker subiranistaren bidean garatzen laguntzeko.

Eta zer erakutsi dizue esperientziak?

Alderdi politikoaren jardueren helburu nagusia hauteskunderen zedarri-

tuta dagoela. Aldaketa bideratzeko programa garatu nahi badugu ezin dela hauteskunderen erregulatua izan. Ez dugu esan nahi ez direla erreferente bezala kontuan hartu behar. Ni EAko eta Ezker Subiranista Eraikitzen-eko kidea naiz.

Baten batek esan lezake ekimena EAtik sortu dela.

Ni EAko Zuzendaritza Nazionalen sartu aurretik Euskaria eta Maltzagan ari nintzen jada. Ezker Subiranista Eraikitzen gogoeta landuta gurela hartu nuen konpromiso hori EAn, hain zuzen ere ekimen honen ildoan hartu ere. EAko ez diren beste lagun askok ere partekatzen du egitasmoa. Eta badago bereziki partekatzen dugun aspektu bat: indarkeriarik ezaren ekimenetan aritea. Hau da, gure tesia partekatu daiteke alderdi bereko kideak izan gabe.

Nola ikusten duzu EA, azken Kongresuaren ostean?

EAK koherentzia irabazi du. Aurreko zuzendaritzaren garaian tesia eta praktika ez ziren ongi doitzen. Orain, gehiengoak onartutako ponentziaren ildoan, pentsatzeko modua zabaltzeko da, lehen zegoen irudia baino koherenteagoa zabaltzeko da. Koherentzia kohesioarekin lotuta dago, amalgaman. EAn hainbat iritzi dago, baina ez daude fusionatuta. Fusio eta amalgamaren prozesuak ezberdinak dira. Fusioan elementu natural dife-

renteak batzen dira zerbait ezberdina sortzeko. Amalgama bizikidetzaren oinarria da: denok norabide batean goaz, baina nork bere jarrerai ezta-baidan eutsiz.

Zer ekar dezake EAk uneon?

Koherentzia irabaztean, edozein giza erakundeak korrespondentzia irabazten du, bi kontzeptuok ezberdinak dira. Korrespondentzia egun hauxe izaki: A koherentzia eta B koherentzia duten bi taldek elkarrekiko harremanak izatea da. Koherentzia gradu egokia izateak korrespondentzia gradu egokia lantzea ekartzen du, hau da, besteekin itauntzeko gaitasuna, politikan ari-zeko berebiziko ezaugarria.

EAk ezkerreko beste alderdi abertzaleak garatu dezakeen harremana hizpide. Nolakoa da Aralarrekikoan?

Aralar koadroek osatutako alderdia da, hauteskundeetarako ahalmen handiko aparatua duena. EA beste eredu bat plantetatzen ari da. Hau da, ez dago ezker subiranistaren espazioa beteko duen alderdirik. Azken urteetako praxi politikoaren ondorioz, errezeloak daude alderdi subiranisten artean. Hori aldatzeko ezker subiranista mugimendua erai-ki behar da. Zentzu horretan, EA alderdi bezala osatutako iritzi korrontea izango da mugimenduan.

Aralar eta EA NaBai koalizioan daude, baina beren arteko harremanak ez dira errazak.

Dibergentziak daude, naturalak, hegemoniaren lehiak eraginda. Aurreko garaiko ohituren ondorioz zailtasunak ditugu eredu subiranista finkatzeko, hegemonismoa gaitza da. Esaterako, ezker abertzale historikoak polo subiranista sortu daitekeela esan du azken urteetan, noski, baldin eta berak lideratua baldin bada. "Ezkerrean ni naiz hegemonikoena" argudiatu du. Polo subiranista izango bada biolentziarik gabekoa izango dela ohartu dira ordea. Aralarrek "orain ni naiz hegemonikoa" dio. Alderdien hegemoniaren arazoa bizi dugu.

Zein da aurrerabidea?

Hegemonia printzipio horri denok uko egitea. Hori da EA barneratzen

ari dena. Hori da ezkerre eraikitze-ko programa gauzatzeko bidea. Bestela-koan alderdien hegemonikoen ereduaren bidean segituko dugu. Alderdi batzuk elkarrekin aurkeztuko dira hauteskundeetara, baina ez da mugimendu sozial sendoa beren atzean eraikiko. Aurreko garaian bezala gertatu ez dadin, alderdien arteko ekimen hegemonikoa ez instituzionalizatzea da gakoa. Iraganean EEko eredia izan zen horren adibide agerikoena. EAk ere bide horretan nabi-

"Egungo ezkerrek ez daki jendea mobilizatzen iraganeko paradigmak erabiltzen dituelako"

gatu zuen denbora luzez. Ikaspena: ez baduzu zure atzean ondo lotutako mugimendu sozial bat, deslotzen zara, bazoaz, eta azkenean sistemak irensten zaitu. Herri honen subiranotasun maila aldaketa eman dadin ezin dugu bakarrik instituzioen bidez aurrera egin, aktibismoa instituzionalizatu beharrean instituzioak aktibizatu behar ditugu.

Lizarra-Garaziko Akordioaren bidean joatea litzateke hori.

Nolabait. Lizarra-Garaziko Akordioaren esperientzia baliatu behar-ko genuke. Akordioa baina, ez zen sozializatu tamalez, ez zen akordioa bermatzeko mugimendu soziala garatu.

"Gizartea instituzionalizatzeko ereduak aldatu dira, baina harreman sozialak lantzeko ereduak ez"

Zer ibilbide ikusten diozu ezker abertzale historikoak Altsasun aurkeztu zuen proposamenari?

Bi bide besterik ez: borroka armatuaren dependentziapean segitzea edo deslotzea. Borroka armatuarekiko independentzia ezak bere mugimendu sozialaren desagerpena ekar diezaioke. Azken urteotan atxilotutako militante gehienak ez dira armekin dabiltzanak, mugimendu

zibileko aktibistak baizik. Borroka armatuaren eta aktibismo sozialaren nahasketa gertatu da. Honi Auzitegi Nazionalak ezarri duen tipo penal zabala gehitzen badiozu, denok izan gaitezke judizialki jazarriak. Ezker abertzale historikoak orain arteko tesiekin segitzen badu, tipo penal horrek mugimendu soziala irentsiko du.

Non ikusten duzu zailtasun handiena ENAMeko ezker abertzalean ematen ari den prozesuan?

Militante historiko asko prest daude ETArekin hausteko, baina ez daude prest zatiketa jasateko. ENAMaren ezaugarrietako bat ez zatitzea da. ETaren bukaera onartzeko prest daude, baldin eta zatiketarik ez bada-go. Beraiekin berba egiten duzunean Aralar ez dute ezta aipatzen ere, ez dute onartu Aralarrek utzi zituenik. Aralar ez zaie gaizki iruditzen bere tesi ideologikoengatik, baizik ez zuelako barnean segitu.

ETak hartu lezakeen jarreraz zerbait gehiago gehitu zenezake?

ETaren jarrera 1960-70ko Europako abangoardia iraultzaile txikien jarrerarekin konpara daiteke. Badu inguru sozial bat, baina gero eta urrunago. ENAMn zatiketa eman gabe ere, mugimendu sozialak zeukan eragina apaldu da. Mugimendu soziala txikitu, bere koadroak gutxitu eta bere kideak urritzen badira, ETaren desagerpen prozesua emango da. Tira, zatiketa eman gabe ere egunez egun ematen ari da jada. Jendeak egun ez du autoritarismoa jasaten. ETak bide beretik segitu nahi duela? Bere ardura da.

Etorkizuna iluna da oraindik ere.

Bai. Izan ere, demagun aktibista batzuek AHTren aurka egiten dutela, bada, indarkeriaren bidean ari direnekin nahasten dituzte. Hasteko, mugimendu soziala desmobilizatzen da. Jarraian, aktibistak Auzitegi Nazionalen bukatzen dute eta mugimendu soziala errotik erauzten dute. Horregatik indarkeriarik gabeko aktibismoa da bide bakarra. Ezker Subiranista Eraikitzen-ek esparru zibiko naturala landu nahi du, biolentziarik gabeko aktibismoa bultzatu, zabaltu eta finkatzeko. ■

Kontatu zure bizitza linguistikoa

Nola ikasi dut hizkuntza? Zertarako? Zergatik? Zein estrategia erabili dut? Juli Palou hizkuntzalari katalanaren ustez, ikasleei aukera eman behar zaie hizkuntza ikasterakoan duten esperientzia kontatzeko.

ONINTZA IRURETA

JULI PALOU Universitat de Barcelonako irakaslea da, Hizkuntzaren Didaktika eta Literatura Sailean. Eskolako Eleaniztasunak eta Hizkuntzen Ikasketa ikerketa taldeko koordinatzailea da. HABEk 2009-2010 ikasturte hasiera ekitaldian, irailean, Palou izan zuen hizlari. *Nortasun kulturala eta eleaniztasuna* izenburuko hitzaldi interesgarria eskaini zuen eta hari horri tiraka ibili gara artikulu honetan.

“Gaztelaniaz ez diet barrerik eragiten”

Palouren tesia argia da: hizkuntzak ikasten ari direnean ikasleei abagunea eman behar zaie prozesu horretan nola ari diren, nola sentitzen diren, azal dezaten. Konta dezatela zergatik ari diren ikasten, zertarako, nola ikasten duten... Gutako bakoitzak hizkuntzak ditu bere barnean eta bakoitzak zerbaiteko balio dio: honakoa familian erabiltzeko, bestea lanean, halakoa jendaurrean aritzeko... Hitzunak hizkuntza horiekin hierarkia ezartzen du, batik bat hizkuntza zertarako erabiliko duen kontuan hartuta. Palouk eskatzen die hizkuntza irakasleei espazioak irekitzeko, ikasleek dauzkaten hizkuntz errepertorioez hausnar dezaten. Ere muak utzi ikasleek euren hizkuntz bizitzaren kontaketa egin dezaten. Hainbat soziologo, pedagogo eta bestelakok horri deitzen diote “Niarentzat espazioak sortzea”,

alegia, “kontua da norberaren bizitza hitzetan jartzea, ulertzeko asmoz”.

Hori zertan datzan azaltzeko hainbat adibide eman zuen hitzaldian. Honakoa bata: unibertsitatean ikasle iparramerikarra zuen Palouk, oso azkarra, hizkuntza asko zekizkiena. Bikotekideak gaztelania eta katalana zekizkien, eta elkarrekin ingelesez egiten zuten. Amaginaberrak errainak katalanez egitea nahi zuen. Ikasleak hala esan zion irakasleari, larri: “Juli, nik gaztelaniaz ez dut barre eragiten, ingelesez berriz oso atsegina naiz eta jendearekin hitz egiten dudanean barre egiten dute eta ez dut lortzen hizkuntza berrian jendeak barre egitea”.

Bilboko Iñakiren adibidea ere esanguratsua da. Dublinera joan zen ingelesa ikastera eta ez zuen harremanik izan nahi euskaldunekin eta espainiarrekin, ingelesa baino ez zuen hitz egin nahi. Pub batean hasi zen lanean. Iñakirentzat oso garrantzitsua zen biraoak esaten ikastea, haiek bezala nahi

“Hizkuntza berriaz jabetzerakoan, gure nortasunean prozesu horrek nola eragiten duen hausnartu behar dugu; nola ikusten dut nire burua?”



Juli Palou hizkuntzalariak, besteak beste, pentsaera elebakarra duenak eleaniztasuna nola ulertzen duen azaldu du.


zuen hitz egin. Etxetik lanera eta lanetik etxerako bidean bakarrikzketan jarduten zuen, ahots gora, gauzak errepikatuz, batik bat intonazioak eta soinuak.

Kapuscinski kazetari eta idazlearen pasarte da Palouk adibideztat hartu zuen bestea. Hala dio kazetariak Indiara heldu zenekoaz: “Bat-batean tranpa batean harapatua sentitu nuen neure burua, inguratua, hizkuntzak hesitu banindu bezala. Momentu horretan hizkuntza gauza material bat iruditu zitzaidan, gorpuztasun fisi-

ko batez hornitua. Bidean sortzen den harresia, bidea mozten dizuna”. Ingelesa ez zekien eta hainbat modu erabili zuen ikasteko. Hemingway irakurtzen hasi zen, baina elkarrizketa zuzenak, deskribapenak ez baitzituen ulertzen. Kalera irten eta manifestaldietako pankartetan irakurtzen zuen guttia idazten zuen. Zinema aretoan, iluntasunean, azpitoluak idazten zituen. Ikasi nahi eta behar horretan erabilitako teknikak azaldu eta gero ondokoa dio: “Mundu bakoitzak bere sekretua du eta sekretu horretara sartzeko, hizkuntza ezagutu behar da”.

Pep Guardiola katalanez Txapeldunen Ligan

Ezin dugu hitz egin eleaniztasunaz eta gizarte eleanitz eta kulturantzaz pentsamolde elebarrerik, dio Palouk. Pentsaera elebarkarra dutenak lirakeke, esate baterako, diotenak euskara eta katalana ikastea oso ondo dagoela, baina garrantzitsuena ingelese ikastea dela. Eleaniztasunaren adibidetzat du hizkuntzalariak Bartzelona futbol taldeko entrenatzaile Pep Guardiolak Txapeldunen Liga irabazitakoan, Italian emandako prentsaurrekoa. Ingelese galdera, eta erantzuna ingelesez. Galdera gaztelaniaz eta erantzuna ere bai. Italieraz, bada italieraz. Katalanez galdera, erantzuna katalanez. Entrenatzailea gauza da ahoz hainbat hizkuntzatan aritzeko, eta katalana ez zuen maila baxuagoan utzi. Katalanez egiten didate, bada nik katalanez erantzun. Beste hizkuntzetako itzultzaileak baldin badaude, katalanekoa ere egongo da, zeren Bartzelona Italiara futboleko jokatzera joan da. Eleaniztasunarekiko pentsaera elebarkarra litzateke horrelako egoera batean esatea, “egoera honetan denek ulertzen dute ingelesez”. Hau da, autoritate



Bartzelona futbol taldeko entrenatzaile Pep Guardiolaren jarduna du eleaniztasunaren adibidetzat Juli Palouk. Italian, prentsaurrekoan, kazetariak galdera egindako hizkuntzan erantzuten zuen Guardiolak.

hizkuntzara jo hitzunen komunikazio egoera konpontzeko.

Umberto Ecoren Europa eleanitza

Nora goaz? galderari erantzunez, Juli Palouk Kataluniako kasua azaldu zuen, hots, nola katalanez dakiena eta hitz egiten duena gaztelaniara aldatzen den besteak gaztelaniaz egin diolako. Egokitze linguistikoa deitzen zaio horri. Horrek ez du esan nahi besteak katalana ez dakienik, baina ez du erabiltzen. Gurean ere badakigu horretaz zerbait. Umberto Ecoren proposatzen duena hortik harago joatea da. Bere ustez, European, herritar askok eta askok norberaren hizkuntza aldatu gabe komunikatzea lortu beharko genuke eta besteen hizkuntza ulertu. Hau da, bakoitzak bere hizkuntza mantenduko luke bestearena ulertzeko gai izanda. Euskara hiztunak pentsatuko du ideia hori gauza daitekeela frantses hiztunaren eta italiarraren

arteko harremanetan edo portuges hiztunaren eta gaztelania hiztunaren artean, alegia, distantzia linguistikoa eramangarria denean. Beste kontu bat litzateke euskarekin European barna ibiltzea. Beharbada, Europa eleanitza baino lehen, diskurtsoan behintzat gurean modan jarri den elebitasun pasiboa landu beharko genuke, alegia, euskara hiztunak euskaraz egitea aurrean duen gaztelania hiztunak euskara hitz egin ez baina ulertzen duelako. Beste hainbeste euskara-frantsesarekin.

Zortzi urteko haurra eta hizkuntzak

Juli Palou, hitzaldia amaitzeaz, hasierako tesira itzuli zen: hizkuntza berria ikasteak zentzuren bat izan behar du, zerbaiteko ikasten dira. Hizkuntza berriaz jabetzen ari garela, hausnartu behar dugu nola eragiten duen prozesu horrek gure nortasunean; nola ikusten dut nire burua?

Bada, zortzi urteko umeari galdetu zioten bere esperientzia kontatzeko. Hona pasarteak: “Nire hizkuntzak: etxean gaztelaniaz hitz egiten dut eta ketxuaz aitarekin; gauzak esaten dizkit ketxuaz eta nik batzuetan hitzak ulertzen ditut eta batzuetan ez ditut ulertzen. Gaztelania bai, ondo ulertzen dut. Nire aitak ez daki katalanez hitz egiten eta nire amak ez daki katalanez hitz egiten. Astelehen eta asteazkenetan eskolara datoz 7:30ean eta nire aitak badaki katalanez eta amak ulertzen du, baina ez du hitz egiten. Nik ez dakit ondo hitz egiten ketxuaz”.

Hara, zortzi urteko ikaslearen bizitza linguistikoa. ■

www.euskara.euskadi.net
helbidean, hitzaldia gaztelaniaz entzun
eta euskaraz irakurtzeko dago.

Babeslea: Hondarribiko Udala



Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

John Edwards soziolinguista “La Vanguardia”n

TXERRA RODRIGUEZEK ekarri du John Edwards Quebecoko soziolinguistari *La Vanguardian* egindako elkarrizketa. Interesgarria da eta hainbat pasarte gogoeta egiteko modukoak. Hona horietako bat:

“– Elebitasuna hizkuntza ahulena desagertuta bukatzen al da?

Bere lurraldean nagusitasuna galdu duenari berea itzultzeko ez dira nahikoa pare bat lege eta hainbat isun; ezinbestekoa litzateke hizkuntza baztertu duten merkatuaren beraren indarrak eta globalizazioa

deuseztatuko lituzkeen benetako iraultza. Horrek kostu handia dauka eta ez da beti demokraziarekin bateagarria.

– Zergatik?

Indar horiek lanean ari dira, gehien-goari mesede egiten dielako. Ekin-tzaileek gaelikoa hitz egin nahi dute, baina ingelesa hitz egitearen pribilegioez gozatuz. Eta ezin liteke”.

Elkarrizketa osoa:

www.blogak.com/garaigoikoa

“Komiki mutua” lehiaketa

ALTSASUKO (NAFARROA) Kima euskara elkarteak antolatu du *Komiki*

mutua lehiaketa. Arturo Arrizabalaga *Jartur*-ek marrazturiko komikiari parte-hartzaileek izenburua eta testuak jarri behar dizkiote. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 27an amaituko da.

Jorge Cortes Izal hil da

OTSAGABIARRA 79 urterekin hil da. Nafarroako ikastolen sortzaileetakoa izan da eta baita euskaltzain urgazlea ere. Euskara ikasten aritzen Asisko Urmeneta irakasle zuela, Pablo Antoñana eta Jose Maria Jimeno Jurio bere adiskideekin batera. 2008an Jimeno Jurio saria jaso zuen, euskararen alde egindako lanagatik.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@doan.euzkadi.net) e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Gutxieneko soldatak, pentsioak eta politikariak

Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko langile eta pentsionistek egun hauetan jasoko dituzte nominak gutxieneko soldatarekin edota pentsioak 2010 urterako “eguneratuak”. Agintariak, diputatuak, senatariak, presidentek, Aldundi eta Udalek, bai eta epaileek ere jasoko dituzte eurenak. Baina zein ezberdinak!

Gutxieneko soldata eguneratua 624 eurokoa da hilean eta hamarnaka mila laguni eragiten die. Politikariak 3.900 eta 7.000 euro arteko soldata eguneratuak jasoko dituzte, dietak, bidaiak eta abar kontuan izan gabe. Espainiako Gobernuak presidentek 7.000 euro inguru jasoko ditu; Patxi Lopez, Jose Luis Bilbao eta Iñaki Azkunak 7.000 euro baino gehiago bakoitzak; Odon Elorza eta Patxi Lazcozek 6.000na euro; Miguel Sanzek 6.000 inguru eta Yolanda Barcinak 5.000 euro gutxi gorabehera. Diputatuak hilean 3.900 euro jasoko dituzte, baina dietak gehituta, 6.000 euroak gaindituko dituzte. Eurodiputatuak, 7.000 euro baino gehiago. Botere judizialeko 21 bokalek 6.500 euro baino gehiago kobratzen dute eta goi-karguek 8.000tik gora. Eta Espainiako Errege Etxeak ia bederatzi milioi euro jasoko ditu aurten! Pentsioei dagokienaz, milaka lagunak hilean 365 eta 679 euro artean jasotzen dute. Politikariak pentsio maximoa jasotzen dute, alegia 2.446 euro. Langileek pentsioa kobratzeko 35 urtez egin behar dute lan eta gutxienez hamabost urtez kotizatu. Diputatuak zazpi urterekin pentsio maximoa lortzen dute. Gobernuak kideak karguari zin egitea nahikoa dute.

Hori da egoera erreala. Zergatik dago horren alde handia “zerbitzari publikoak” direnean? Zergatik pribilegio horiek? Zer gizarte ari gara sortzen? Zer etsenplu ematen dute politikariak, beraiek dira-eta soldaten eta pentsioen murrizketak inposatzen dituztenak? Ez daitezela harritu herritarrek lotsagabe, bizizale, esplotatzaile eta hipokritatzat hartzen dituztelako.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Jon Alemanek Berrian esanak:

“ETBri gertatu zaio horrelakoren bat. Espainolizatu egin omen dute PSE-PPk. (...) Eta, hala ere, nago, boikot hori ez ote den gure teila-tuari harrika aritzea bezalakoa. Zeren, ene galdera da, zer katerekin ordezkatu dute ETB1? Ba al dago euskarazko beste katerik? Ez. Edo, beharbada, asko jota ere, ba al dago erdarazko beste kateren bat Euskal Herriaren aldekoa? Nik ezagutzen ez”.

Inazio Lopezek Hiria argialetxeak argitaratutako Peru Abarkaren berrargitalpenaz Berrian esanak:

“Hasteko, testuaren edizio berrant eskasa da. Seguruenik, balizko irakurleari gustatuko zitzaiokeen jakitea zein edizio aukeratu den testua finkatzeko, edota grafia gaurkotu denetz, eta nolako irizpideak erabiliz. Halaber, balizko irakurle horrek ez du argibide filologikorik aurkituko. (...) Guztiarekin ere, gutun hau idaztera bultzatu nauena liburuak hitzaurre gisa daukan sarrera –Luis Haranburu Altunak sinatua– izan da; horren beste harritu bainau sarrera hori akatsez josita aurkitzeak. Akats horiek zenbatzeko lana hartu dut, eta ... ehunka daudel”.

Bada berrikuntzarik ETArek agirian

ZUHUR ETA EZKOR hartu da ETArek azken komunikatua, ez ei du borroka armatuaren amaiera iragartzen, ETArek aldetik interesatzen den komunikatu bakarria "armak noiz eta non utziko dituen iragartzen duena da" eta gisakoak errepikatu dira beste behin ere. Eta bai, ETArekin zuhur ibiltzea da logiko eta zentzuzkoena; ez da samurra bere komunikatuak interpretatzea eta, egiazki, euskal gizarteak borroka armatua behin-betiko utziko duela entzun nahi du. Bai, pentsatzekoa da ETak ez zuela esperoko agiri hau etxafuegoekin hartuko zenik.

Baina komunikatuan berrikuntzarik ez ikustea, hori bai dela interesatua. Ikuspegi ahalik eta objektiboenetik begiratuta, berrikuntzak begi-bistakoak dira, bai hizkuntzan, doinuan eta batez ere edukian: argi eta garbi adierazten du bat egiten duela Altsasuko Adierazpenarekin, honek esan gura duen guztiarekin.

Gero hori guztia beteko duen ala ez, bada, batek daki, Anoetako prozesuarekin ere ados zegoela argi utzi zuen bere garaian —oraingo agirian ere errepikatu du— eta denok ezagutzen dugu ondoren gertatutakoa. Erabat harrigarria egiten da Loiolan erdietsitako akordioak atzera botatzeara eta orain berriz gisa honetako prozesu bat abiaraztea. Izango dira oraindik publikoki ezagutzen ez diren klabeak, eta ez ninduke harrituko horietako batzuk ENAMen batasun eta zatiketa kontuekin zerikusirik balute.

Hau da, eta azken agirira itzulita, ETak sinesgarritasun arazo handiak dituela bai, eta eltzea sutan frogatzen dela ere bai, baina komunikatu honetan berrikuntzarik ez dela ikustea... hori itsuarena egitea da, edo bestela, lehenxeago esan bezala, oso interesatua eta usain txarrekoa



euskal gizartearen gaur egungo bake nahiekiko.

Urrats oso garrantzitsua da Altsasukoa, batez ere baldintzarik jartzen ez duelako eta Mitchel printzipioak onartzen dituelako. Hauek, laburtuz, honakoa diote.

— Gatazka politikoak bide baketsu eta politikoetatik konpondu behar dira.

— Talde paramilitarrak desarmatu.

— Desarme batzorde batek desarmea egiaztatu ahal izatea.

— Indarra erabiltzeari uko egitea, eta norbaitek erabiltzen badu horren aurka agertzea.

— Alderdien arteko negoziaketaz lorturikoa bultzatzea eta bakarrik bide demokratiko eta baketsuak erabiltzea adostasunean ez dauden puntuak aldatzeko.

— Heriotzak eta zigorrak geldiaraztea.

Azken hilabeteetako nahasmena ikusita, ETari eskatzen zitzaion bere jarrera agertzea. Erakunde honek esan du orain ados dagoela goiko lerroetan esaten den guztiarekin, eta alderdi politiko gehienek diote hor ez dagoela berrikuntzarik?

Noiz gertatu da, bada, horrelakorik ETaren historian? Egia da aurretik ere su-etenak eskaini dituela, baina ez Mitchell printzipioen planteamendupean.

Batasunako buruzagiek "prozesu demokratiko" hau agertu zuteanean ere berrikuntzarik ez zegoela aipatu zen oso modu zabalean. Gerora, apurka, hasieran emandakoa baino garrantzi gehiago aitortzen joan dira eragile politikoak. Honekin berdintsu gertatuko dela aurreikus liteke.

Baina, eta orduan Portugaleko mugako leherkari mugimenduak? Aitortu behar da ez dela oso bateragarria Mitchell printzipioekin bat egin eta halako mugimenduetan aritzea. Bitxia da, halaber, printzipio horiek onartu eta borroka armatuaren amaiera ez iragartzea. Baina pentsatzekoa da baita ere, oraingoa bide armatua alboratzeko benetako azken saioa bada, logikoa dela ETak armekiko adioa kudeatzea eta urratsak "prozesu demokratiko" horren komenientzia politikoaren arabera bideratzea.

HAITI-KO HONDAMENDIAK, eta, batez ere irudiek, dantzan jarri dituzte Mendebaldeko herritarren kontzientziak. Eta karitatea eta justiziaren arteko eztabaida berriz geratu da agerian, aspaldian ez bezalako indarrez. Milaka hildakoak itoginaren gisan ematen badira, urteetan zehar, berdina da. Lurrikara eta irudiak behar dira asalatzeko eta kontzientziak astintzeko. Gure "lehen mundu" honen hipokrisiak gaindiezina dirudi. Une honetan, dena den, eta haitiarren larrutan jarrita bederen, hausnarketa gutxi eta egin asko, hori da laguntzak eta elkartasunak eskatzen dutena.

Giza simaurretan adituak behar ditu gizadiak

Ura, elikadura, erregaia edo alfabetatzearen alderantziz, gizadiaren premia larrien artean ez da aipatzen komuna.

Izatekotan “ura eta estolderia” formulan uzten da ezkutaturik. Baina milioika gizakiren gernu eta gorotzak ondo bideratu gabe segitzeak arazo oso larriak dakartza.

EZ DIRUDI POLITA KAKAZ ETA PIXAZ komunikabideen orriak zikintzea. Azkenerako, gizakion eguneroko beharrak izendatzeak berak buruhausteak ematen dizkigu. NET HURBIL hau, hala ere, kakaz, gorotzaz eta oro har gizakion eginkariez –Gipuzkoako Goierrin “inkaie” usatzen da, hitz polit askoa– ariko da. Aipatze hutsa lotsagarria dirudiena munduak dituen arazo larrien artean dagoelako.

Bada kontuotaz liburu bat klasi-koa: *The Last Taboo: Opening the Door on the Global Sanitation Crisis* (Azken tabua: komun sistemen mundu mailako krisiari atea zabalduz). Ben Fawcett eta Maggie Black-ek plaza-ratu zuten 2008an, hain zuzen Nazio Batuen Erakundeak “Saneamenduaren urtea” deitu zuen horretan. Zerbaiten seinale dirudi ur zikinak bideratzeko sareari “saneamendua” deitzea...

Beste askorekin alderatuta zala-parta txikia eragin zuen gai honek 2008an. Haren gaurkotasuna oroi-tarazteko, Maggie Black-ek artikulu zabala plazaratu du urtarrilean *Le Monde Diplomatique*ren frantsesezko eta ingelesezko edizioetan: *Le tabou des excréments, péril sanitaire et écologique*. Honela hasten da: “Denok egi-ten dugu ‘hori’ baina ez da esan behar. Txukundadeari lotutako tabuak, hala ere, saihestu litezkeen

milioika heriotza estaltzen ditu. Gero eta jende gehiago bizi delarik hirietan, eginkarien kudeaketa hil ala bizikoa da, bai osasunarentzako eta bai giza duintasunarentzako”.

Hona datu funtsezkoa: 2.500 milioi jende bizi da komunik gabe munduan. Planetako populazioaren %38ak konpondu gabe dauka egu-nero sortzen dituen gorotzen ara-zoa. Milioika pertsona horiek mol-datu beharra daukate edo aire librean libratuz edo osasun baldin-tza minimoak betetzen ez dituzten sasi-tualetak usatuz.

Herrialde txiroetako baserri eremu gehienetan herritarrek zelai, baratze eta basoak erabiltzen dituz-te. Populazioa asko ugaltu denez, higie-ne aldetik desastre bat da, mota guztietako gaitzak kutsatzen direlako, batik bat haurren artean. Baina gainera gaua aprobetxatu behar da eginkizunotarako, eta horrek baimentzen ditu klase guz-tietako bortizkeriak, batik bat ema-kumeek –egun argitan beren beha-rrak egitea zailago daukatenek– nozitu behar dituztenak.

Hiritartzearekin ez dira gauzak hobetu herrialde txiroetan. Askok lortu dute etxe ondoan instalatzea maila sozialean igo izana erakusten duen komuna, baina azpiegiturarik ezean inguruko parajeetan edo ibaietan pilatzen dira eginkariak,

sekulako kutsadura eraginez. Hori horrela da turistaz betetako auzoe-tako atzeko aldeetan.

Munduan urtean milioi eta erdi haur txiki hiltzen da diarreak on-dorioz, gehienetan saneamendu-rik ezak eraginik. Beste milioi askok hesteetan edo oinetan daramatzate parasitoak. Baina arazoa da sarritan herrietara edateko ura bera ekartzea baino garestiagoa dela saneamendu sistema antolatzea. Herrialde abera-tsetako sareen berdinak ezingo lira-teke bere horretan antolatu nazio txiroetan: nondik atera hainbeste diru? Europarra ez da ohartzen zenbat kostatzen den komoditatean utzi duen oparia hodi sistema kon-plexu batez, ur asko erabiliz, depu-razio guneraino eramatea.

Eginkarietan txapeldun

Duela urte eta erdi *New Internationalist* aldizkariak aipamen berezia egin zien komun sistema herrialde txi-roetako herrietara zabaltzen txapel-dun diren pertsonen. Titulu hau darama artikuluak: “Komunetako txapeldunak ez dira hain arraza bitxia. Hona hemen zenbait ale nabarmen”.

Kamal Kar da horietako bat. Bangladeshen 1999an hasita Herri-tarrek Kudeatutako Saneamendu Osoa (CLTS ingelesezko sigletan) jarri du martxan. Irolak subentzio-

Wikipediatik hartutako argazkian Haitin herritarrek Our Soil erakundearen laguntzaz auzolanean eraikitako komun lehorrak ageri dira. Altuera baten gainean daude, herritarren eginkariak azpiko biltegian jasotzeko. Urik gabe funtzionatzen dute eta pertsona bakoitzak eginaldi bakoitzean eskukada batzuk zerrauts, txirbil edo sutako hauts jaurti behar ditu zuloan, higie-nezko neurri moduan eta usainak ekiditeko. Tarteka hustu egiten dira biltegiak eta bertan bildutako simaurra aparte eramango da baratzetarako konpost bihurtzeko. Ez urik, ez estolderia garestirik eta ez depurazio sistematik behar ez duten komoditate idorrok asko zabaltzen dira. Herrialde txiroetan herritarren osasuna bermatzeko adina balio izan dute gizakien duintasuna bermatzeko.



natzeko partez herritarrak mobilizatzea da Karrentzako gako. Sistema abiarazi nahi duten herrietan, lehenik auzotarrak eramaten ditu aditu batekin herri inguruak ikustera, “lotsagarritzko ibilaldia” egitera: zelai eta baratzeetan egindako kaka pilak ikusten dira, horiek mapan markatzen eta eragiten dituzten klase guztietako arazoak eztabaidatzen. Gero herritar guztien artean antolatuko dira komun berriak, saneamendu arau zorrotzak erabaki eta horien jarraipena kontrolatzen.

Blindeshwar Pathak 1970etik Indian ari da *Sulabh Sanitation Movement* animatzen. Honen kasuan, lehen helburua soziala izan zen: Brahmin kastakoak izan dira betidanik gainerako herritarren hondaki-

nak —tartean gorotzak— eskuz atera behar zituztenak. Sulabh sistemarekin komun kolektiboak antolatzen dira gune jakinetan, herritarrek merke ordainduta erabiltzen dituzte, eta lanbide umiliagarri eta osasunaren kaltekoan ari ziren Brahmindarrak bestelako ofizioetan enplegatu ahal izan dira. Tartean, tualetak fabrikatu, instalatu eta artatzen. *New Internationalisten* arabera, 60.000 boluntario ari dira Sulabh proiektuan.

Herritalde behartsuetako saneamenduan eta leku aberatsagoetako giza simaurraren erabilera ekologikoagoan ari direnen artean, erreferentzietako bat Uno Winblad suediarra da. Arkitektoa ikasketaz, 1980an egin zuen lehen lana Addis

Abeban, Kenyan. Berehala ohartu zen Winblad ez zitzaizkiola baliagarri Europatik eramandako saneamendu eskemak: aski ur ez zegoen Afrika idorrean, simaurrez eta geroz betetakoan putzuak husteko energia falta zen, lurpean hodi sistema eraikitzekeko materialik ez...

Winblad jotzen da *Ecological Sanitation* ideiarene aitatzat, elkartu zituelako urik gabeko komuna eta giza eginkariak konpost bihurtzea. Europan eta Amerikan ere gutxi izango ziren garai hartan —orain bertan ez dira asko— ohartzen zirenak gizakion kaka eta txiza komunitik behera eramateko ura usatzea alferrik galtze handia dela, ingurugiroa kutsatzen duela eta gainera nekazaritzari ongarria kentzen diola. Txirotasunean amildutako herrialde batean giza konposta arazo bat baino gehiagoren konponbidea gerta daiteke.


Hasieran ez omen zuen harrera handirik eduki Winbladen *Ecosan* proiektuak, baina Suediako gobernuak lagundurik pixkanaka Afrika, Txina, Vietnam, Hego Amerika, Mexiko eta abarretara zabaltzen. Denborarekin, kaka alde batetik eta pixa bestetik tratatzeko moduan egokitu ziren sistemak, bien nahasketak arazoak dakartzalako.

Interneten sartuz gero irakurlea harrituko da zenbat informazio dagoen komun idorrez, eta zenbat tresna komertzializatzen den munduan sistema horretan aritzeko. Euskal Herria Zuzenean-era joan eta komunlarria sentitu zuenak ezagutuko zuen horietako bat. Giza simaurtegi jasangarria, alegia. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Josemari Velez de Mendizabal

Ilea eta Aristofanes

Hasi berri den urte honetan berrogei bete dira Londresera lehen aldiz heldu nintzela, kotxez lagun batekin. Kerouac-en izpirituari omenezko keinu bat egin nahi izan bagenio bezala, mundua “deskubritu” nahi genuen gure kabuz, garaiko gure talaia estu eta ertzez beterikoak ahalbidentzen ez zigun moduan. Ingalaterrako hiriburura ailegatu aitzin, baionar Pannecau kalean izan genuen lehen geltokia, gure bihotzak askatasun egarriz baitzeuden. Handik Parisera –Place du Tertre, Quartier Latin... Pigalle!– eta Calaisetik barrena Albion zaharrera.

Londresetik musika disko mordo batekin itzuli nintzen. Eta 33 bira minutuko haietako bat *Hair* musikalari zegokiona zen, urtebete lehenago editatua. Nire bildumaren izarrik preziatuenetakoa bilakatu zen eta etxetik hamaika lagun igaro ziren larunbat arratsaldeetan harribitxi harekin gozatzeko. Gure piurak ere aldatzen joan ziren, hippie tribu hark aldarrikatzen zuen bizimodu aske eta aurreiritziz gabeen murgil egiteko. Eta, lehen lehenik, ilea libre hazteari utzi genion. Txima eta bizarra luzeak ziren guban nagusi. Ilea genuen mundua aldatzeko nahia adierazteko modu aproposa. “Ilargia zazpigarren etxearen gainean dagoenean, eta Jupiter Marterekin lerrokatzean, bakeak gidatuko ditu planetak eta maitasunak izarrak” zioen gehien atsegin genuen abestiak.

Bi urte beranduago –udako abuztu kiskalgarrian– Montelarreinako kanpamenduan nengoen, soldadutzan. Asteburu batean Medina del Campoko musika emandaldi batera sartu ginen lagunok. Eszenategian Los Canarios taldea, Teddy Bautista bere liderrarekin. Egungo SGAEko presidente dena ausartu zen esatera, *Hair* abestia jo behar zutela abisatuta gero: “Ilerik gabe ez dago ideiak sortzerik”. Huraxe eskandalua! Gu, soldadu-trantze hartan



DANI BLANCO

kaskamotz, denetarik bota genuen musikari tokira, eta zaintzakoek kalera atera gintuzten. Gure amodio propioan zauritu gintuen, gaur ile gutxi luzitzen duen exekutiboak. Eta gogoratu genuen, bazela musikaleko beste pieza bat: “Nire iritzia da, ile luzea eta beste itxura deigarriak, gizona lumadun dirdiragarri agertzeko kamuflaje txar bat besterik ez direla” zioena.

Eman dira beste urte asko eta goizero ispiluaren aurrean lehen aitortza pribatua egiten dudanean, buru gainean oso ile gutxi geratzen zaidala egiaztatzen dut. Bizarrari eusten diot, hori bai, gazte nintzela baino motzagoa, zainduagoa. Zuritzen ari zait, gainera. Nik uste dut “euskara salbo ikusi arte” harengatik segitzen dudala tinko. Eta, ispiluak itzultzen didan irudiari so, eguneko lehen promesak egi-


ten ari naizela, seguru asko bizardun ehortziko nautela pentsatzeak ilundu egiten dizkit begitarrea eta gogoa. Euskararengatik, noski. Portzieto, ez nituen Gabriel Aresti eta Mikel Laboa bizardunak ezagutu. Ez al ziren kontsekuenteak euren predikuarekin? Hain gaizki ikusten al zuten panorama?

Aristofanesez inbentatu bide zuen, bere antzerki obra batean protagonistak erdiko hatza jasotzean, giza-diak hain usu erabiltzen duen keinu lizuna. Aristofanesez ere idatzi zuen –*Lisistrata*– emakumeen sexu grebari esker Greziara bakea

ekarriko zuen obra. Eta hala gertatu zen... bakea eszenategian bakarrik loratu zen arren. Gauero ilargia zazpigarren etxera ailegatu ote den begitatzten dut nire leihotik, *Haireko* egileen promesaren esperantzan, baina susmoa dut –*Lisistrata*rekin bezala– eszenategian bakarrik ematen zela Jupiter Marterekin lerrokatzea. Eta, halaber, musikalaren egileek erdiko hatzaren keinua ez ote ziguten oparitu pentsatu dut sarritan. A! Eta berrogei urte barru burusoil hutsa! ■

Ispiluak itzultzen didan irudiari so,
eguneko lehen promesak egiten ari naizela,
seguru asko bizardun ehortziko nautela
pentsatzeak ilundu egiten dizkit begitarrea eta
gogoa. Euskararengatik, noski. Portzieto, ez
nituen Gabriel Aresti eta Mikel Laboa
bizardunak ezagutu. Ez al ziren
kontsekuenteak euren predikuarekin?

ASTE HONETAKO zozketa



Uztartza Aterpetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Herriko Plaza 1
Aduna, GIPUZKOA
Tel.: 943 693 481

1



Aiko -maiko

3 kamiseta

Karmelo Labaka, 4
Hernani, GIPUZKOA

www.aiko-maiko.com

2



Des-Kontrol

Aurrera Begira

3 CD opari

Baga Biga
www.baga-biga.com

3




Organiks

3 CD opari

Gaztelupeko hotsak

www.hotsak.com

4



Ardibidez

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

ISTILU ARROPA SORTA

- Miren Abalde Alzuart (Donostia)
- Lierni Alberdi Balzategi (Bergara)
- Kepa Ezeiza Larrañaga (Legorreta)
- Aitor Larrañaga Imaz (Bilbo)

ETXE

- Eduerne Lazkanoiturburu Manterola (Hondarribia)
- Maite Arrizabalaga Txurruka (Mutriku)
- Karmelo Etxenagusia Atutxa (Bergara)

THE DIRTY PINK LADIES

- Elena Garaikoetxea Epelde (Soraluze)
- Pedro Azkarragaurizar Igartza (Elorrio)

NAIROBITARRA

- Arrasateko Udal Euskaltegia (Arrasate)
- Maddlalen San Miguel Otegi (Zaldibia)

ATXASPI HOTELA

- Aitor Bravo Encinas (Leioa)

haizetara

HARPIDETU!

15 euro urtean • 11 ale

ORAIN HARPIDETUZ GERO,

HONAKO HAUEK JASOKO DITUZU OPARI:

- PIOLET ITXURAKO GILTZATAKO BAT
- ZUK AUKERATZEN DUZUN MUGALARIKO GIDA

(NEW YORK, HABANA, BERLIN, PARIS, LONDRES, AMSTERDAM, LISBOA EDO BARTZELONA)
*IZAKINAK AGORTU ARTE



BIDAL EZAZU KUPOI HAU HONAKO HELBIDE HONETARA:

 **haizetara**

Zazpi Haizetara
Portuetxe 23, 2. solairua
20018 Donostia (Gipuzkoa-EH)

Nahiago izanez gero, posta elektronikoko mezu bat bidal dezakezu zazpihaizetara@astero.net helbidera kupoiaren azaltzen diren datuekin. Astelehenetik ostiralera 10.00etatik 17.00etara 943316999 telefono zenbakira deituta ere harpidetu zaitezke.

Ale bakoitzaren prezioa kioskoan 2010. urtean: 1,5€
Urteko harpidetza:

Euskal Herrian: 15€
Estatu espainolean: 18€
Europar: 50€

Izena.....
Helbidea.....
Posta kodea..... Herria.....
Herrialdea..... Telefonoa.....
NAN..... E-posta.....
Bankua..... Txartelaren jabea.....

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Aukeratu nahi duzun gida: ☐ New York ☐ Habana ☐ Berlin ☐ Paris ☐ Londres ☐ Amsterdam ☐ Lisboa ☐ Bartzelona